

Herririk Herri |7|

Iurretako Udalak igogailua jartzeko baldintzak ordenantza baten jaso ditu

Berbaz |9|

Etixerat: "Sakabanaketak presoak eta euren senideak zigortzen ditu"

Amalurra |26|

Herritarren parte-hartze foroak abian, herrietako arazoak konpondu guran

Urkiolako Parkean harrobirik ez izatea onartu dabe

Mañaria • Urkiolako Patronatuak Parke Naturaleko normatiba aldatzea erabaki dau. Ekimen horrek Zalloventa harrobiaren hedapena mugatzeko bidea zabaltzen dau. Halan be, araudia aldatzea prozesu luzea izango dela aurreikusten dabe Patronatuko kideek.

3

Etxebizitza tasatuen araudia aldatzea erabaki dau Udalak

Zaldibar • Orain dela urtebete onartutako etxebizitza tasatuen araudia aldatzea onartu dau Udalak. Prezio tasatuko etxebizitza eskuratzea "erraztu" gura dabe, bete behar diren baldintzak "malgutuz". Izan be, azaroan egin eben etxebizitzaren zozketan eskari "urria" jaso eben.

4

Anita Maravillas taldeko zornotzarra

KULTURA • Badalonan ipini dabe martxan Miren Larrea zornotzarrak eta beste hiru kidek Anita Maravillas txotxongilo tailerra. Euren lanaren emaitzetako bat dakarskue asteon: *Sarean Sun Sun*.

13

Bihar ekingo deutsie Herri Artekoari

KIROLAK • Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa hasiko da asteburuan. Behetik ekingo deutsie Atxondok, Abadiñok, Durangok, Iurretak eta Elorriok. Maila bat gorago zain dago Berriz; Mallabia, barriz, final zortzirenetan sartuko da lehian. Durangok, esku pilotan ez eze, zestana be parte hartuko dau.

23

•Durango

Hungtinton gatxak jotako familien topaketa Durangon

3

•Otxandio

Udaberri Jaiak ekitaldi ugari batuko ditu gaztetxe inguruan

4

•Elorrio

Erreka kaleko jaiak martxan

6

Dispertsinoa salatzeke biraren amaiera Durangon

> Euskal Herria zeharkatzen diharduen bira bihar helduko da Durangaldera.

> Etxeratek Landako Gunean antolatu dau domekako amaiera ekitaldia.

2



J. Fernandez

Guti eta Pradera omenduko ditue bihar Zaldibarren

Zaldibar • Txirrindularitza itzi daben Mikel Pradera eta Fran Gutierrez omenduko ditue bihar. Lagun eta zaleek ez dabe ahaztu txirrindulari bi honeek bizikleta gainean afizionatueta zein

profesionaletan egindako lan oparoa. 11:30ean txirrindularien topaketan parte hartu gura dabenak plazan batzeko deia egin dabe. Ondoren, Goierri auzoan bazkaria egingo dabe.

24



HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Dispertsinoaren kontrako bira Durangon amaituko da, domekan

Sakabanaketaren 20. urteurrena salatu gura dau Etxerat-ek Euskal Herrian zehar abiatutako birak

Zapatuan sartuko da Durangaldean sakabanaketa salatzeko Etxeratek antolatutako Dispertsinoaren Aurkako Bira. Apirilaren 14tik 19a bitartean Euskal Herrian zehar, herriz herri eta auzoz auzo, hainbat ekitaldi antolatu ditue eta datozen egunotan Durangaldean be prestatu ditue ekintzak. Domekan emongo dabe amaitutzat sakabanaketaren 20. urteurrena dela eta eratutako mobilizazio astea. Gasteiz eta Iruñean hasi zitueen ekitaldiak. Landako Gunean izango da amaiera ekitaldia, 12:00etan. Bertan herrialde guztietako auto-karabana elkartuko dira, antolatzaileek jakin eragin daben moduan.

Durangaldean bihar sartuko da Etxeratek antolatutako Dispertsinoaren Aurkako Bira: lurretan hasiko da, 11:00etan

Dispertsinoa salatzeaz ganera, euskal presoek eta euren senideek bizi daben egoera ezagutarazo gura dabe

Lurretan abiatuko da auto-karabana Durangaldean, zapatuan 11:00etan. Durango, Abadiño eta Atxondo igarota, Elorriora 13:00etan helduko da. Bertan Katxueri egingo deusie omenaldia. Arratsalde 16:30ean irtengo dabe Elorriotik, eta Eubatik Zornotzarako bidea egingo dabe; 18:00etan zeharkatuko dau herria autokarabana, Gatzaga gogoa hartuz.

Egoera ezagutzera emon
Indarrean jarri zela 20 urte bete diren honetan, dispertsinoa salatu gura dau Etxeratek, abiatutako ekimen horren bitartez, eta, euskal presoek eta euren familiek bizi

daben egoera herritarrei ezagutzera emon. Halan nabarmendu gura izan dabe antolatzaileek. Horren ildotik, dispertsinoaren aurka dagozen herritar guztiei dei zabala egin deuse, apirilaren 19an Durangon, Landako Gunean, izango den ekitaldi nagusian parte hartzeko. Dispertsinoaren Aurkako Biragaz "sakabanaketa amaitzea eta euskal preso politikoen eskubideak errespetatzea" eskatzen dau Etxeratek. ■ A.B.

Domekan Landako Gunean izango da amaiera ekitaldia, 12:00etan hasita

'Durango UKE' barik 'Durango Kirolak' izango da aurrerantzean

Kirol zerbitzu eskaintza 'Durango Kirolak' izenpean batuko da aurrerantzean, 'Durango Udaleko Kirol Erakundea (UKE)' izenpean barik. Halan onartu dau udalbatzarrek. "Komunikazioa hobetzeko eta irudia indartzeko premia" ikusita proposatu dau izendapen aldaketa Gobernu Taldeak. "Izen zahar eta barrien nahasketaren aurrean sinplifikatutako izena sortu gura izan dogu; erraz gogoratzeko, denek ulertu leikiena eta kirola sustatzen lagunduko dauena". Kirol azpiegitura barriak be batuko ditu.

Aralarrek herritarrei galde-tu ez izana bota dau faltan eta Talde Mistoak adierazo dau, 'Durango Kirolak' "euskalduna" gura dauela eta "horretan lan" egingo dauela. ■ A.B.



Norberak esan behar dau zer hizkuntzatan egin inskripzioa, datuak emoterakoan. A.B.

Euskaraz egin leiteke inskripzioa Erregistro Zibilean

Euskararen normalizaziorako bidean "beste pauso garrantzitsu bat" emon dabela dinoe

Durango Epaitegiko Erregistro Zibilean badago dagoeneko inskripzioa euskaraz egiteko aukera. Halaxe jakin eragin dau Epaitegiko Euskara Batzordeak. Argitu dabenaren arabera, erregistro liburuaren sistema informatizatua jarri dabe martxan, eta, horri esker, hemendik aurrera jaiotza, heriotza, ezkontza eta tutoretza ins-

Aurrerantzean jaiotza, heriotza, ezkontza eta tutoretza inskripzio barriak euskaraz egin leitekez

kripzio barriak euskaraz egiteko aukera be izango dabe herritarrek, halan eskatuz gero. Euskararen normalizaziorako bidean "beste pauso garrantzitsu bat" emon dela adierazo dabe Euskara Batzordeko kideek. Horren haritik, herritarrek eskubide hori erabiltzera gonbidatu gura ditue.

Datuak emoterakoan
Inskripzioak hizkuntza baten bakarrik egin behar ditue herritarrek, euskaraz edo gaztelaraz, eta norberak adierazo behar dau zer hizkuntzatan egin gura dauen, datuak emoterako orduan bertan,

Euskara Batzordeak azaldutakoaren arabera. Gaineratu dabenez, Erregistro Zibilean inskripzio barriak hizkuntza bakar baten eginda egonda be, ziurtagiriak, barriz, gura daben hizkuntzan eskatzeko aukera izango dabe herritarrek.

Bake epaitegietan ez
Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) justizia jauregietan martxan jartzen diharduen aplikazio barria da aitatu hori, Durango Epaitegiko Euskara Batzordeak jakinarazo dauen moduan. Halan be, oraindino behintzat, ez da bake epaitegietan zabalduko. ■ A.B.

Epaitegiko Euskara Batzordeak eskubide hori erabiltzera gonbidatu gura ditu herritarrek

EAEko Justizia Jauregietan abiatzen dihardue aplikazio barria; oraingoz, ez da bake epaitegietara zabalduko



Hungtinton gatxa daukien 50 familia elkartuko dira bihar Durangon

Hungtinton gatxa daukien 50 bat familia elkartuko dira bihar Landako kiroldegian, akats genetiko neurologiko batek eragindako gaixotasunari buruzko ikerketez jarduteko. Galdakaoko neurologo Javier Ruiz Ojeda gonbidatu dabe, Hungtinton Norte Elkarteko presidente Alfonso Akesolok azaldu dauenez. Heriotza dakarren endekapenezko gaixotasuna da Hungtintona, eta herentziazkoa: oinordeek hartzeko aukera %50ekoa da.

EAEko 50 lagun dagoz elkarrean, eta 10 urte dira “bai hartu-emona mantentzeko bai azken ikerketen barri izateko” elkartzen direla. Ekainaren 20an izango dabe hurrengo topaketa, eta Galdakaoko psikiatra Angel Padierna izango dabe eurekin.

Hungtintona heriotza dakarren endekapenezko gaixotasuna da eta seme-alabek hartzeko aukera %50ekoa da

Landako kiroldegian elkartuko dira Hungtinton Norte Elkarreak deituta

Irailen Mendekotasun Legea aztertuko dabe Gizarte Ongizate diputatu Juan Mari Aburtogaz. “Familiei, zaintzaileei... laguntzeko gai garrantzitsua da”, dino Akesolok. Hungtintona “sozializatzearen” alde agertu da bera: “Ezagunago egiteko, medikuen artean be”. Ildo horretan, Osakidetzagaz elkarlanean Lehen Mailako zentro, ospital edo neurologo eta psikiatrak dihardueen beste zentroetan informazinoa helerazo gura dabe. “Lehenago be egin dogu, harrera onagaz”. ■ A.B.

BERRIZ

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz sortu den kanpaina

Ehun liburu gomendagarri, irakurriz gozatzeko

Topaguneak *Irakurri, gozatu eta oparitu* liburu gomendagarrien zerrenda osatu dau irakurzaletasuna sustatzeko asmoz eta Berrizko Udala ekimen honi atxiki jako. Liburutegia irakurleen zerbitzura dagoela gogoratu dabe. Gainera, asebetze-fitxa betez gero

MAÑARIA

Harrobiaren hedapena mugatzeko bidea zabaldu dau Patronatuak

Aho batez onartu dau Patronatuak Urkiolako Parke Naturaleko normatiba aldatzeko aukera



Lehenago Bizkaiko Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean azpimarratu eben naturguneako araudia aldatu beharra. Iban Gorriti

Urkiolako naturgunearen inguruko udalen, foru aldundien, talde ekologisten eta nekazal zein ehiztari elkarrean ordezkariek osatzen daben Urkiolako Patronatuak apiril hasieran egin eban batzarrean onartu eban, aho batez, Parke Naturalaren normatiban aldaketa jasotzea: Parke Naturalean diharduen Zalloventa harrobiaren ustiaketarako etorkizuneko hedapen asmoak gelditzeko bidea zabalduko dauen araudi aldaketa; ustiapen adizionalak debekatzeko bidea zabalduko dauena.

Bidea zabaltzea, Urkiolako Patronatua eskumen betearazlerik ez daukan organu bat delako –organu kontsultiboa da– eta prozesua luzea izatea aurreikusten dabelako. Zalloventa harrobiari ustiapen gehigarri abian jartzea eragotziko deutsan aldaketa Urkiola Parke Naturaleko araudia- ren sartzeta da Patronatuan, “par-

Naturgunearen barruan dihardueen harrobi ustiapenei muga jartzeko bidea zabaldu dau Urkiolako Patronatuak

%25eko deskontu txartela jaso leiteke Ama Lur dendan trukatzeko. Euskaltegiko eta Berbalaguneko ikasleek, berriz, %50eko deskontu txartela jasoko dabe. Liburuaren nazinoarteko egunean, apirilaren 23an, hasi eta uztailaren 26a bitartean iraungo dau kanpainak.

Liburuen zerrenda adin tar- teen arabera banatuta dago. 18 urtetik gorako multzoan 25 liburu dagoz, Euskal Herriko zein kanpoko idazleenak. Tartean dagoz Harkaitz Canoren, Bernardo Atxagaren eta Joseba Sarrionandiaren nobelak, besteak beste. ■ J.D.

kearen parlamentua” izateko sor- tua izan zenean, gehiengo osoak onartu dauena.

Hain zuzen be, 2007an Bizkai- ko Batzar Nagusietan aho batez eta 2008an Eusko Legebiltzarrean gehiengoz onartu eben legez bes- teko proposamenak jasotzen eban eskaria da Urkiolako Patronatua- ren apirileko osoko batzarraren mahai gainean izan dena, eta era- kunde horrek bere egin dauena.

Urteetan goian aitatutako inst- antzietan eskariak eginez, herri- tarren alegazioak bilduz eta bes- telako bideetatik Zalloventa harro-

biaren ustiapena geldiarazteko helburuz jardun daben eragileen berbetan, lehenago hartu beharre- ko erabakia da apiril hasieran Patronatuak hartu dauena, baina aldi berean, inportantea.

Harrobiak gaur egun dituen mugetatik harago ustiatzeta debe- katzeko bidea zabaltzen dauen lehenengo pausutzat agertu deus- kue Patronatuaren erabakia. ■ I.E.

Parkearen araudia aldatzea prozesu luzea izango dela aurreikusten dabe eragileek

IZURTZA

Aguazil izateko lan-poltsa osatzen dihardu Udalak

Langabezia dagoen jenteak emon leike izena

Udaleko aguazil postua beteko dauen pertsona hautatzeko lan poltsa zabaldu dabe, eta izena emoteko epea apirilaren 30a arte luzatu. Hautagaien zerrendan izena emoteko ezinbesteko baldin- tza bi ipini ditue: B1 gidabaime- na edukitzea eta langabe izatea.

Hautaketan, barriz, aintzat hartuko dituen beste zenbait ezaugarriren barri be emon dabe jakitera; lorazaintzan, makin- en erabileran nahiz igeltsarotzan esperientzia izatea, euskara jaki- tea eta herrian erroldatuta ego- tea hartuko ditue kontuan. ■ I.E.

Bertako okela

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

▣ ZALDIBAR

Etxebizitza tasatuen araudia aldatzea onartu dabe, aho batez

Prezio tasatuko etxebizitza eskuratzea “erraztu” gura dabe neurri horregaz, gobernuak dinonez

Apirilaren 8an egin eben ez-ohiko udalbatzarrean onartu eben, aho batez, Udalean ordezkaritza daukien lau alderdiek orain urtebete onartu eben prezio tasatuko etxebizitzaren ordenantza aldatzea. Etxebizitza tasatuko eskuratzeko bete behar diren baldintzak “malgutzea” dela aldaketaren arrazoa dino gobernuak.

Oposizinoko alderdiek be bidezko aldaketak jasotzen direla adierazo eben plenoan

Azaroan egin eben zozketan izan zen “eskari urria” kontuan izan dabe aldaketak egiterakoan, azaldu dabenez

Eskola inguruko lursailean eraiki eta azaroan zotz egin zitueen etxebizitzak eskuratzeko “izan den

eskari urria” kontuan izanda, dinoe gobernu taldetik, “etxebizitzok eskuratzea erraztuko dauen mekanismo legala osatzeari ekin deustso Zaldibarko Udalak. Orain arte etxebizitza tasatuen eskuratzea arautzen eban ordenantzaren aldaketaren alde egin dabe, aho batez, Udalean ordezkaritza daukien alderdiek. Aldaketok aztertu eta garatzerakoan, azaroko zozketaren ondoren herritarrek helarazoz eutseezen kexa eta eskariak izan ditueela oinarri azpimarratu dabe Gobernu Taldekoek.

Gobernu Taldeagaz ados

Oposizinoko alderdiek ordenantzaren aldaketa “bidezkoa” dela adierazo eben, eta aurreko ordenantzaren arabera etxebizitza tasatuen zozketan izateko aukerarik izan ez eben herritarrei aukera zabaltzeko modua dela ordenantza barriak jasoko dauena.

Orain barneratutako aldaketegaz, aurreko araudiak zehazten eban gitxieneko diru-sarreraren bal-



Azaroko zozketaren ondorengo herritarren kexak izan ei ditue kontuan aldaketa egiterakoan. I.E.

dintza ez dau jasotzen etxebizitza tasatuen ordenantzak. Zozketan parte hartu ahal izateko baldintzetako bat, bestalde, jadanik ez da beste etxebizitzaren bat jabetzan ez izatea. Ordenantzaren

aldaketagaz batera, Autonomia Erkidegoan bizi diren eskatzaile guztiekin zerrenda osatuko dabela aurreratu deuskue Udalean.

Behin apirilaren 8an udalbatzarraren gehiengo osoak etxebi-

zitza tasatuen ordenantzaren aldaketa honeen aldeko jarrera adierazota, aurrerantzean baldintza barriok gidatuko dabe prezio tasatuko etxebizitzaren salmenta eta erosketa Zaldibarren. ■ I.E.

▣ OTXANDIO



Udaberri Jaiko ekitaldi gehienak plazan egingo ditue. J.Fernandez

Udaberri Jaia egun osoko egitarauagaz ospatuko dabe

Gaztetxe eta gazte asanbladei buruzko erakusketa izango da bihar plazan

Otxandioko Gazte Asanbladak eta tabernariak udabarriari ondoetorria emateko jaia antolatuko dabe biharko, apirilaren 18rako.

Goiz guztian zehar Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladei buruzko erakusketa ikusgai izango da plazan, eta 12:00etan

gai horren inguruko eztabaida egingo dabe. 13:30ean hasiko den trikipoteoari Gaztetxean egingo daben bazkariak lekukoa hartuko deutso. Bazkarian parte hartzeko txartelak hainbat tabernatan salgai jarri ditue, 8 euroren truke.

Arratsaldean gaztetxe eta gazte asanbladen defentsan herriko kaleak zeharkatuko dituen kalejirak Zornotzako Zaparrada batukada izango dau bidelagun. 19:00etatik aurrera batukada saioa izango da.

Musikak egun osoko egitaraua borobilduko dau. 23:30ean Póg Mo Thón talde mungiarak kontzertua eskainiko dau plazan. *Oztopo guztien gainetik* kaleratutako azken lana aurkeztu dabe Markel, Beñat, Juanma eta Julen taldekideek. Jarraian, Akerbeltz taldearen erromeriak Udaberri Jaia aurtengoagaitik amaiera emongo deutso.

Egun osoko egitaraua Gazte Asanbladak antolatuko dau, eta kontzertu eta erromeriaz tabernariak arduratu dira. ■ J.G.

Gaztetxean egingo daben bazkarian parte hartzeko txartelak hainbat tabernatan salgai jarri ditue, 8 euroan

Herriko kaleak zeharkatuko dituen kalejirak Zornotzako Zaparrada batukada izango dau arratsaldean bidelagun

Bihar gauean Póg Mo Thón taldeak kontzertua eskainiko dau, eta ondoren Akerbeltz taldearen erromeria izango da

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DiBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU

AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

FISIOTERAPIA



OREKA LASAI-GUNEA

- YOGA
- YOGA (UMEAK)
- KIROL-MASAJEA
- PILATES
- TAILANDIAR MASAJEA
- MASAJE KURTSOAK

Anduetxeta, 6 - behea
48230 ELORRIO

tf. 94 658 47 96

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Ituriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta ATZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
Portaera, depresio, loezin, antsietate,
bikote, eskola-atzerapen, anorexia,
bulimia. Jokabide terapien masterduna.
www.psicologo.biz

Frantzizko Ibarra 6
48200 DURANGO

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

ELORRIO

Alokairuko 15 etxebizitza sozialetako giltzak emon ditue

2010ean zehar beste 44 bizileku sozial prest egotea itxaroten dabe

Eusko Jaurilaritzak sustatzen dauen babes ofizialeko etxebizitzaren politikaren barruan, apiril hasieran alokairuko 15 bizilekutako giltzak banatu zitueen. Galartza Uria kalean dagoz bizileku horreek. Javier Madrazo jarduneko Etxebizitza eta Gizarte Gaie-

tako sailburua eta Niko Moreno alkatea izan ziren ekitaldian, besteak beste. Etxebizitzek 56 eta 94 metro karraturen artean ditue.

Denek daukie garajea eta trastelekua. Batez besteko hileko alokairua 200 eurokoa da. Eusko Jaurilaritzak 2.350.000 euro bideratu

ditu proiektu horretara. Ildo horretako lehenengo egitasmoa izan den arren ez dela azkena izango adierazi eban Niko Moreno alkateak. Izan be, 2010ean zehar Nizetu Urkizun babes ofizialeko 20 etxebizitza prest izango dira, eta Galartza Urian beste 24. ■ J.D.



Besteak beste, Niko Morenok eta Javier Madrazok parte hartu eben ekitaldian. J.D

Asteburuan Erreka kaleko jaiak ospatuko ditue

Trapatoni Circus Banden kontzertua gaur gauez

Musika kontzertuek emongo deusie hasiera aurtengo Erreka kaleko jaiak. 23:00etatik aurrera, Namek Planet eta Trapatoni Circus Band taldeek zuzenekoak eskainiko ditue plazan. Ondoren, gauerdetik aurrera DJ festa izango dabe Ateneoan.

Bihar, goizetik gauera, ekitaldiz josita dago eguna. Azken aldian indar eta sona handia har-

Bihar 'Mokaua' ikuskizuna dago Arriolan, eta Oihergi taldeagaz erromeria plazan

Etzi arratsaldean Nafarroako jotak eta Mexikoko musika ikusteko aukera egongo da

tu daben bideo jokoak eta eurentan jolasteko euskarri barriak (wii, guitar hero...) probatzeko aukera izango da plazan eta Errebonbillon. Teknologia berririk ez, baina ikuskizuna bardin-bardin emongo dabe Berrio-Otxoak antolatutako pilota partiduetan, 17:00etan hasita.

20:00etan AHTaren aurkako manifestazinoa abiatuko dabe. Gauez Mokaua multimedia ikuskizuna eskainiko dabe Arriolan. Azkenik, Oihergi taldeagaz erromeria egingo dabe plazan.

Etzi, 18:30ean hasita, Nafarroako jotak eta Mexikoko musika entzuteko aukera dago hiru talderen eskutik plazan. ■ J.D.

Auzo-bideetako luiziak konpontzen

Gazetan eta Angion harri-lubetak egingo ditue

Urtarrileko euriteek ez eben kalte handirik eragin Durangaldean, baina luizi txikiak eragin zitueen han-hemenka. Elorriori, esaterako, erreka zakar joan zen egun horreetan, eta inguruko lurrak mogitu zituen Gazeta auzoko bidean eta Angioko oinezkoen pasealekuan. Datorren astean hasi eta astebetean antzeko luiziak ekiditeko harriko harri-lubetak eraikiko ditue bide bazterrean.

Gazetako lanak burutzeko 9.600 euroko atala bideratu dabe; Angioko harri-lubeta eraikitze-

ko, barriz, 5.300 euroko atala sortu dabe.

Berez ez dira luizi handiak, baina konpondu ezik "etorkizunean inguruko lurrak hondortzeko arriskua dago", dinoe udal ordezkariak. Horregaitik, kaltetutako zonaldean lurrari eutsiko deusien harriko lubeta sendoak eraikitzea erabaki dabe.

Saskibaloi kantxa

Bestalde, aste honetan zehar Elorrio Herri Ikastetxeko saskibaloi kantxa biak eraberritu ditue. Lehenengo kantxak asfaltatu ditu, eta ondoren zorua margotu dabe. Horrez gainera, saski barriak be ipini ditue, zaharkituta zegoen aurrekoak aldatuta. Erabarritze lan horreek burutzeko 36.000 euro erabili ditu Udalak.

Azkenik, Iturri kultur etxe-ko erakusketa aretoko argiztapena moldatu egingo dabe. Esaterako, zonalde batzuk ilun samar ikusten dira, eta foko barriak ipini ditue. ■ J.D.

ATXONDO

Euskara Plana jasotzen dauen txostena, onartuta

Udaletxeko eta kaleko erabilera aztertu dabe

Gobernu Taldeko zinegotzien aldeko botoagaz eta jeltzaleen abstentzinoagaz egin dau aurrea Atxondoko 2008-2012 Euskara Planak. Beronen sustatzaileek azaldu dabenez, "apurka-apurka euskararen normalizazioaren bidean aurrerapausuak emoteko" modua da aste honetako udalbatzarrean onartutako plana.

Agazko urte amaieran, bai Udaletxean bai kalean UEMA-ren (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen) bitartez egindako azterketa da Euskara Planaren abiapuntua. Udaleko ahozko hartu-emonetan, zein dokumentuetan euskarak gaur egun daukan

presentzia aztertu dau UEMA-ko teknikariak, eta baita euskararen kaleko erabilera be.

Azterketak islatzen dituen gabeziak markatu eta euskararen normalizazioaren bidean aurrera egiteko "helburuak" zehazten ditu asteen onartutako Planak, alkateak azaldu dauenez: Udalak euskaraz funtzionatu daian lortzea da helburuetariko bat. ■ I.E.

Udalak euskaraz funtzionatu daian lortu gura dabe, Euskara Plana garatzeko oinarri moduan

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

APIRILAK 25 - 11:00 larunbata

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna

ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // biquerenut@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna

IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // loizartzabal@hidason.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 23 - 18:00 osteguna

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata

ESKORIALTZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // santera@huhezi.mondragon.edu



DIURRETA

Igogailuak jartzeko arauak jaso ditue ordenantza bidez

Irisgarritasunerako eskubidea eta hiri-ingurua uztartu gura izan ditue



Zubiaurre edo Dantzarin igogailua jartzeko eskariei ezin izan jake erantzun orain arte. A.B.

Egoitzako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen ordenantza onartu dau udalbatzarrek. Aho batez onartutako araudiak irisgarritasuna ahalbidetu gura deutse eraikin zaharretan bizi direlako kalera heltzeko baldintza egokirik ez daukien edo zailtasunak ditueen

Zubiaurre inguruan, adibidez. Baina, ezin izan jake erantzunik emon.

Eskariak maiatzetik aurrera Maiatzaren amaieran aurreikusi dabe tramite guztiak amaituta egoitea eta eskariak egiteko aukera zabaltzea. Aurretiko azterketa indi-

bidualizatua eskatuko da baime-na emoteko. “Irisgarritasunerako eskubidea eta hiri-ingurua uztartu gura doguz, kalterik sortu barik”, nabarmendu dau Totorikaguenak. Lur publikoa hartzea “ezinbestekoa” dela be arrazoitu beharko da, generatu dabenez. ■ A.Basauri

Igogailurako lur publikoa hartzea “ezinbestekoa” dela arrazoitu beharko dabe baimena lortu ahal izateko

herritarrei. Ildo horretan, jabari publikoa erabiltzeko aukera sustatu eta arautuko dabe. Izan be, zenbait eraikinetan fatxadaren bitartez eta lur publikoa hartuz baino ezin da igogailua jarri, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldulez. Egon dira igogailua jartzeko lur publikoa hartzeko eskaerak alkatearen berbetan, Dantzari eta

Diru-laguntzak be arautu ditue

Igogailuak jartzeko ez eze, bizitegi kolektiboko erabilerako eraikinetan fatxadak eta estalkiak zaharbarritzeko diru-laguntzak batzen dituen udal-ordenantza be onartu dau udalbatzarrek. Denen adostasunagaz onartutako araudiak traba arkitektonikoak kentzeko laguntzak be jasotzen ditu.

Bizilagun komunitateari bideratutako laguntzotarako—edo eraikinaren ugazaba baka-

rrari— 50.000 euro gorde ditue udal aurrekontuan, eta aurkeztu den aurrekontuaren %20ra arteko laguntza jaso ahal izango da; gehienez, 10.000 euro.

Aitatzekoa da laguntzok Jaurilaritzak Etxebideren bitartez emoten dituen laguntzekin bateragarriak direla. Inguru publikoa mantentzea da helburua, alkatearen berbetan: “Hiri-inguruaren kontserbazinoa hobetzea. Ez da sasoirikonena, baina laguntzak hor dagoz eta denporan aurrera mantentzea da asmoa”.

Animaliak edukitzeko udal-araudia onartu dabe

150 eta 15.000 euro arteko isunak jaso ditue

Animaliak babestea eta osasun publikoa uztartu gura dituen araudia onartu dau Udalak, “elkarbizitza hobetu eta bermatzeko”. Zaunk-egaz daukan itunaren baitan dago jasota bestelako zerbitzuen artean (animaliak jasotzea, errolda eta erregistroa egitea...).

Animaliak eduki eta babestea arautzen dituen ordenantzak hainbat gai batzen ditu: higie-ne eta osasun baldintzak bete behar ditu, eta identifikatuta eta errol-datuta egon. Ugazabakakak jaso behar ditu, ezin dau kalean itzi eta ezin deutso tratatu txarrik emon. Arriskutsuak izan leitekezenak edukitzea be arautzen dau orde-

nantzak. Orokorrean 150 euro eta 15.000 euro arteko isunak aurreikusi ditue araudian. Arauhauste oso larria dira jagoken baldintzak ez betetzea edo arriskutsua izan leitekeen animalia abandonatzea; kakak oinezkoen-dako gune baten izteak 600 euroko isuna ekarri leike.

Alta eta bajak aintzat hartuta, 150 txakur dagoz erroldan; 10 arriskutsuak izan leitekez. ■ A.B.

Arriskutsuak izan leitekezen animaliak edukitzea be arautzen dau ordenantzak

SMALLABIA

Futbito zelaia estaltzen dihardue

Udarako futbito zelaia gertu izatea gura dabe

Martxoan hasi zitueen futbito zelaia estaltzeko beharrak. 363.000 euroko aurrekontua izan daben lanok Artzamendi S.A enpresak egin ditu.

Igaz, uda inguruan eskoleta-ko frontoian egin zitueen behar-ekin (aldagelak barriztu eta pilota-lekua eta eskola banatu) eta aurtengo otsailean gimnasia eta beste kirol ekintzak udal pilotalekuan egiteko zabalduko aukeragaz Udalak Mallabian kirola egiteko aukerak “zabaltu” gura izan ditu. Futbito zelaia estalita,

partidu ofizialak bertan jokatu ahal izatea da helburua. Izan be, gaur egun, futbito taldeak Zaldibarren jokatzan ditu bere partiduak. Saskibaloi kantxa be bertan kokatuko da, eta ikasleek aterpean jokatu ahal izango dabe.

Beharrak uda baino lehenago amaitzeko asmoa daukie. Orain instalazino honeen erabiltzaileei be “arduratsu” jokatzeko eskatzen deusie, “aukera hori” ez daien galdu.

Bideak konpontzen

Makina bat denbora daroe Andinoko auzokideek euren etxeetara doan bidearen egoeraz kezkatuta. Igaz Udalak agindu eban legez, oraintxe burutuko ditue hobetze-lanak. Apirilean hasteko asmoa daukie (80.000 euro) eta BYCO enpresa arduratu-ko da lanok egiteaz. Areitioko bidea konpontzeko beharrak be laster hasiko ditu PROVISA enpre-sak, 125.000 euroko aurrekontuagaz. ■ Pello Mugarza

Gaur egun, Zaldibarren jokatzan ditue partiduak Mallabiko futbito taldekoek

Azkenengo hobekuntzekin Udalak kirola egiteko aukerak zabaltu gura izan dituela azaldu dau

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 - DURANGO Tel.: 94 681 50 17

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua

Obra osteko garbiketa

Kristalizatuak eta abar

Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO

Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA

Tfnoa. 681 43 85

Arrike

Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO

Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

EGIA

AROSZTEGIA

EBANISTERIA

ZUZENEKO SALMENTA

Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurria - Oholtzak

Tel. eta Faxa: 681 77 46

Ertea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

Tabiru kalea, 54

48200 DURANGO

ABADIÑO

Zaharren egoitza eraiki daien bultzatzeagaz aurrera darraie

Egoitza eraiki daian Aldundiari lursaila izteko asmoa berretsi egin dabe

Gobernu Taldeko eta EAJko zinegotziak ados agertu ziren azken udalbatzarrean Bizkaiko Aldundiak zaharren egoitza Abadiñon eraiki daian lursaila lagatzeko asmoa berrestean. Orain, Udalagaz sinatu beharreko hitzarmena idaztea da Bizkaiko Aldundiaren eginbeharra, Navarro alkateak esan ebanek. Bi lursail publikoren artean zein lagako jakon Bizkaiko Aldundiari aztertzen dabilzela azpimarratu eban.

Ezker abertzaleko zinegotziek abstentzinoaren aldeko hautua egin eben bozketan, proiektuan “argitasunikez dagoela” uste dabelako eta, egitasmoari bidea ixterik gura ez badeutsie be, prozesua eta negoziazio guztia “oso anbigua” dela pentsatzen dabelako.

Jeltzaleen proposamena

Bizkaiko Aldundiari lursaila lagatzeko asmoa berresteagaz bat egin ebela azaldu eta gero, Axier Garatek proposatu eban etorkizuneko zaharren egoitza hartzeko ez eze, adimen urriko lagunendako egoitza hartzeko be lursaila itzi deiola Abadiñok Aldundiari. “EAJ-k ez dau aukera hori alboratuko, eskualdean adimen urritasuna daukien lagunak hartuko dituen egoitza baten beharra badago”, azaldu eban.

Hasikeratik eskuartearen izan daben aukera zaharren egoitzaren proiektua izan dela eta adimen urriko lagunendako Abadiñon dagoeneko badagoela Atxarte egoitza erantzun eutsan Garateri Navarro alkateak. ■ I.E.

Bi lursail publikoren artean Bizkaiko Aldundiari zein emon aztertzen jarraitzen dabela adierazo dau alkateak

Adimen urriko lagunak hartzeko egoitzaren gaia ipini eben jeltzaleek udalbatzarreko mahaian

GARAI



Errepidea itxita dagoenean etxe barrien atzeko bidea erabili behar da saihesbide moduan.

San Migel kaleko lanetan bete-betean sartuta

Errepidea itxita egon da aste honetan zehar

Martxoan hasi zitueen San Migel kalea urbanizatzeko obrak, eta dagoeneko lan horreen eraginak nabarmenak dira herrian.

Abadiñorako norabidean, espaloia kalean gora luzatuko da, eta dagoeneko lanaren erdia egin da daukie. Gainera, 5 aparkaleku

Maiatz erdialderako obra guztia amaituta egotea itxaroten dabe, udal ordezkarien arabera

be egokitzen dihardue zonalde horretan. Bestalde, kontrako noranzkoan dagoen aparkalekuak norabidez aldatu ditue, eta errepidea asfaltatzea falta da orain. Maiatz erdialderako amaituta egotea itxaroten dabe, udal ordezkarien arabera.

Lan horreek direla-eta, herria zeharkatzen dauen foru-bidearen zati bat itxita egon da aste honetan, eta baleiteke egun batzuetarako egoera horretan aurkitzea. Bitartean, etxe barrien atzeko bidea erabili behar da saihesbide moduan. ■ M.O.

ABADIÑO

Topagunearen urteko batzarra

Dagoeneko 93 elkarte batzen dituen Topagunea euskara elkar-teen federazioak Zuzendaritza Batzordea barriztu dau azken urteko asanbladan. Berbaro elkarteko Nahia Zarzosa eta langileen ordezkari barri Amaia Alberdik jardungo dabe aurrerantzean Ione Narbaizaren (Berbaro) eta Urko Aristi (Mailope) eta Aritza Escandón-en orde. Topagunearen lehendakari Karmen Irizarrek jarraituko dau beste hiru urtean. Besteak beste, komunitate linguistikokoan euskara elkar-teen papera aztertze-ko eztabaida abiatzea erabaki eben urteko batzarrean; hiru urte iraungo dauen eztabaida izango da.

MAÑARIA

Lapurreta Herriko Tabernan



Herriko Tabernan lapurretan sartu dira asteon. Eguazten goizaldeko 02:30ean sartu ziren lapurrak tabernara, ugazabak azaldu dauenez- eta makina txanpojalea apurtuta bertan zegoen dirua eroan eben; bestelakorik ez ei eben eroan. Inguruko bizilagun batek abisua emon ondoren bertaratu zen Ertzaintza. Orain urtebete be sartu ziren lapurrak Mañariako Herriko Tabernan. Orduan, tabernan ez eze Udaletxean be sartu ziren.

DURANGO

Gorka Lupiañezen kontrako auzia Audientzia Nazonalean

Datorren apirilaren 23an hasiko da Gorka Lupiañez preso durangarraren aurkako epaiketa Audientzia Nazonalean. Horren aurrean, Elkartasun Martxa antolatu dabe Durangon —Intxaurren eta Ttipi-ttapan emon leiteke izena—. 2007ko abenduan espetxeratu eben, konfidantzazko abokaturik barik, inkomunikatuta deklaratu ondoren. ETaren Bizkaia Komandoko kide izatea leporatu deutsie. Erakunde armatuko kide izatea eta armak eta dokumentu faltsuak edukitzea egotzi eta baldintzarik barik espetxeratzeko eskatu eben. Berrizen atxilotu eben gaztea.

DURANGALDEA

Abadiño eta Berrizko jaiak iragartzeko kartelaren bila

Abadiñoko San Trokaz jaiak iragartzeko kartela aurkezteko azken eguna da gaur, apirilaren 17a. Horretarako Txanporta edo Errota kultur etxeetara jo behar da, 20:30 baino lehenago. Irabazleak 600 euroko saria lortuko dau, eta 350 eurokoa herriko lan onenak. Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartela lehiaketan parte hartu gura dauenak, bestalde, maiatzaren 22a arte dauka aukera; Udal Liburutegian aurkeztu behar dira. Oraingo honetan, 300 euroko saria lortuko dau irabazleak; herriko onenak, barriz, 100 eurokoa.

BERBAZ >

“Sakabanaketak eragindako sufrimendua islatu gura dogu”

Eskualdeko presoek senitarteko eta lagunek dispertsinoa salatu eta presoek eskubideak aldarrikatu ditue



Iban Gorriti

Aitor Virumbrales•

Lutxi Mintegi•

■ Etxerateko kideak

Dispertsinoak 20 urte bete dituela salatzeko asmoz Etxeratek antolatutako auto-karabanak Euskal Herria zeharkatu dau. Durangaldera bihar helduko da, eta domekan azken geldialdia Landako Gunean egingo dau. Sakabanaketa zelan bizi daben ezagutzeko, eskualdeko presoek senideekin bat egin dogu.

Sakabanaketak zer ondorio izan dituela deritzozue?

Aitor Virumbrales. Dispertsinoaren ondorioak oso latzak izan dira: 21 preso hil dira kartzelan, 16 senide eta lagun auto-istripuz hil dira eta ehunka kotxe istripu izan dira.

Lutxi Mintegi. Eurak kartzelan dagoz eta guk mugitu egin behar dogu. Edadeko jenteak, gaixoeak, umeeak milaka kilometro mugitu behar izaten dabe. Zigor bat da bai presoentzat bai senitartekoentzat. Ondorioak euren dako eta inguruko guztiendako izaten dira.

Familia eta lagunak artean zelan bizi dozue egoera hori?

L.M. Gure kasuan, semea urte bat baino gehiagoan aitita ikusi barik dago ezin daudelako halako bidaia bat egin. Hainbat kilometro egiten doguz,

eta sekula ez dakigu han zer topatuko dogun. Eurak be arduratuta egoten dira bisita helduko ete den, eta gero handik onik itzuli gaitezen berriro etxera.

A.V. Ekonomikoki be gastu handia da. Zama handia da. Errepidean arriskuan gagoz, eta lagunak doazenean arduratuta gagozelako etenbako tentsinoan bizi gara. Kasu askotan bidean arazoren bat gertatu bajaku ezin dogu abisatu.

20 urteko dispertsinoaren zer balorazino egiten dozue?

A.V. Banaketa sortu gura izan dabe, eta sufrimendu handia eragin daben arren ez dabe lortu. 15 preso baino ez dagoz Euskal Herrian. Gainera, dispertsinoa espetxe barruan be bizi dabe.

L.M. Gu beti euren aldamean izango gara eta gure berotasuna ez dabe galduko.

Sakabanaketak hainbat fase izan ditu, Parot doktrina tarteko.

A.V. Gaixorik izan diren hainbat preso ez ditue ebakuntza egitera eroan, eta kartzelako medikazinoa ez da egokiena. Parot doktrina be oso gogorra izan da. 20 urte kartzelan egon eta azkenengo egunean esatea beste hamar urte egon behar dauela... 40 preso dagoz egoera horretan.

Dispertsinoaren kontra izan diren ebazpenek ez dabe eraginik izan.

L.M. Beste hainbat eskubidegaz gertatzen dena gertatzen da: demokratikoa deitzen den estatu honek ez ditu bere legeak errespetatzen. Errepertsinoa eten barik darabil.

“Sakabanaketa zigor bat da, bai presoendako bai senideendako”

“Astebururo gertatzen dena islatzeko karabana antolatu dogu”

Zer helburu dauka asteen antolatu dozu karabanak?

L.M. Astebururo gertatzen dena irudikatzeko karabana antolatu dogu. Astebururo 700 preso bisitatzera 2.000 pertsona inguru mugitzen dira bidean eta arriskuan. Jente hori guztia prest dago presoek duintasuna bermatzeko. Dispertsinoaren aurka gagozela eta presoek laguntzeko prest gagozela islatu gura dogu.

A.V. Euskal Herriko zati batek badaki dispertsinoak zer eragiten dauen, baina beste batzuek ez dabe egoera ezagutzen, eta horreei ezagutzera emotea gura dogu.

Durangaldean zer ekitaldi prestatu dozue?

A.V. Karabanagaz hainbat gunetan geldialdiak egingo doguz, istripuak, egiten ditugun kilometroak, hildakoak... oroitzeko. Iurretan hasiko da 11:00etan. Durango, Abadiño eta Atxondo igarota, Elorrión Katxue eta Zornotzan Gatza gogoratuko doguz. ■ J.G.

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Durangon mobilizazioa deitu dau Euskadi CCOO

Maiatzaren 16an Bilbon deitu dabe protesta, krisiaren “errudunak salatzeko”

Krisialdiaren “benetako errudunak salatzeko” manifestazioa deitu dau maiatzaren 16an, Bilbon, Euskadiko CCOO sindikatuak. *Ez da zure krisia baina zure eskubideak dira* da aukeraturak leloa. Aurretik, baina, beste bost protesta ekitaldi be iragarri ditue: lehenengoa Durangon, apirilaren 21ean. Ondoren, Beasainen, Gasteizen, Donostian eta Bilbon izango dira. Ekomia-aren egoera ikusirik, krisia gainditzeko neurriekin “kontuz” ibiltzeko eskatu deutsee enpresaburu eta administrazioei: “Lan baldintzak okertzea ez da konponbidea izango; babes sozialerako eta lan

merkatua arautzeko sistemak indartu behar dira”, Euskadi CCOOren ustez.

Langileen interesak babesteko, administrazioagaz “elkarrizketa sozialerako prozesuak has-teko” prest agertu da Euskadiko CCOO, eta Jaurilaritzako lehendakari barriagaz berba egingo ei dabe. Maiatzaren 21erako ELA, LAB, ESK, EHNE, EILAS eta Hiru sindikatuak deituta grebari, bestalde, “frontismo politiko eta sindikala” bilatzen dauen ekintza deritzoe. “Krisialdiaren testuinguruan ez ditu langileak babestuko” helburu horregaz eratutako grebak.

Maiatzaren 21eko grebak “frontismo politiko eta sindikala” bilatzen ei dau

“Babes sozialerako eta lan merkatua arautzeko sistemak indartu” behar dira, sindikatuaren ustez

Bizkaian %0,3 igon da KPIa martxoan

Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) %0,3 igon dau martxoan Bizkaian, Espainiako INE estatistika institutuak jakitera emon dauenez. Nafarroan eta Gipuzkoan, barriz, %0,4 igon ziren prezioak martxoan, otsailagaz alderatuta; Araban, hamarren bat igon da KPIa.

Bestalde, urtebetetik hona Bizkaian %0,5 igon dira prezioak; Gipuzkoan %0,4 eta Araban %0,3. Nafarroan, barriz, %0,2 jaitsi dira prezioak, argitara emondako datuen arabera.

Urtebetetik hona KPIa %0,5 igon da Bizkaian; Nafarroan jaitsi da %0,2

■ kolaborazinoa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Krisiaren aurrean, mobilizazioak

Azken hilabete hauetan, krisi ekonomikoak langileengan duen eraginaren aurrean, mobilizazio eta informazio kanpaina burutu du CC.OO. Euskadik.

Sindikatuak gauzatzen ari garen etenik gabeko kanpaina honen helburu nagusia krisiaren ondorioak ekiditeko proposamenak eta ekimenak gizarteratzea da. Industria sektore sendo eta dinamiko batean oinarritutako egitura sustatu nahi dugu, eta Patronal, Gobernu eta krisia langileek ordaindu dezaten nahi duten gainotzeko sektore ekonomikoen aurrean mobilizazioak bultzatu.

“Apirilaren 21ean lurretako kultur etxean batzartuko gara”

Ez da zure krisia baina bai zure eskubideak, defenda itzazu! lelopean egindako kanpainarekin, uda hasieran bukatuko diren estatu eta lurralde mailako batzarrak egiten ari gara gure ordezkari-kin egungo egoera aztertu eta sindikalgintzaren ikuspuntutik egindako proposamenak eztabaidatu ahal izateko. Durangaldean apirilaren 21ean egingo dugu batzarra lurretako Kultur Etxean, ondoren Durangoraino egingo dugun manifestazioarekin jarraitzeko.

“Krisiak eragindako ondorioei aurre egiteko, mobilizatu zaitez”

Kanpainako ekitaldi nagusia Bilbon, maiatzaren 16an, izango da. Estatu mailako manifestazioa egingo dugu bertan geure eskubideak aldarrikatzeko hauek murriztu nahi dizkigutenen aurrean. Elkarrizketa, negozioa eta mobilizazio bidez langile eta herritar moduan eskuratu ditugun eskubideak dira, eta tresna sindikalekin lortu ditugunak. Horregatik, krisiak eragingo dituen ondorioei aurre egiteko CCOOrekin batera mobilizatzea animatzen zaitugu.

> ZORNOTZA

Camelot 97-n 11 langile kaleratzea salatu dabe

Zornotzako Camelot 97 enpresak —Amaya Telleria taldekoa— “abi-satu barik eta burofax” bitartez 11 langile kaleratu izana salatu dau LAB sindikatuak. Neurri horri “koldarra” eta “asmo txarrekoa” deritzoe. Camelot 97k 123 langileko taldea dauka. Igaz, urte amaieran, enpresak 40 behargin kaleratuko zituela eta mobilizazioak hasi zitueen, enpresak atzera egiterakoan bertan behera itzi zirenak.

Apirilaren hasieran, enpresak 11 langileri lanera ez joateko esan eutsen, “txandaketa aldaketa arrazoituz”. Baina, LABen berbetan, “burofax bidez helerazotako kaleratze agiriarekin eta kontu korrontean diru kopuru bat sartuta aurkitu ziren”. Kaleratzeok ezeztatzea eskatu dabe langileek, eta “berba eginda irtenbideak topatzeko jarrera” agertu dabe.



Mobilizazioak hasi zitueen igaz, enpresak 40 langile kaleratuko zituela iragartzean. Iban Gorriti

EXCAVACIONES JON

MOTAGUZZI TARKO INDUSTRIAS HONDAKINDIGIA

Jon Garraioa Gaitzategui

PROYECTOS DE OBRA - OBRAS DE RECONSTRUCCION

Tel. 946 816 673 - Fax 946 817 636

ZARATE ELEXPE

E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]

MUSIKA > KONTZERTUA

Russian Red kantariaren folka eta popa, ahotsa eta gitarra

Datorren barikuan, apirilaren 24an izango da Russian Red ezizena baliatzen duen Lourdes Hernandez kantari madrildarraren emanaldia Durangoko Plateruenean. Bertan aurkeztuko ditu folk eta pop erritmoen uztartzetik sortutako doinuekin osatu eta iaz plazaratutako *I love your glasses* diskoan bildutako kantak.

Apirilaren 23an Bilbon eskainiko duen kontzertuaren ondoren izango dugu 22 urteko abeslari eta gitarra-jotzaile gaztea Durangon zuzenean ikusi eta entzuteko aukera. Biharamunean Galizian duen kontzerturako bidea hartu aurretik izango ditu Bizkaiko hiriburuan eta Durangon kontzertuok. Izan


ere, urte hasieratik zuzeneko emanaldiz josita du Russian Red kantariak egutegia, eta horren lekuko da eskualdeko zita hau ere.

Russian Red erabiltzen duen ezpainenakaren koloreari erre-fentzia egiten dion ezizena dela azaltzen du kantariak, eta ezizena bezala bere kantetako berbak ere ingelesez sortzen dituela, horrela sortzen direlako.

Goyasarietan gorai patua izan den Javier Fesserren *Camino* filmaren soinu banda osatzen duen *Cigarettes* abestia ere hizkuntza horretan sortu zuen. Ingeleseko berbak sortzen dituen eta azkenaldian oso entzutetsu bilakatu den kantariaren ahots eta doinuekin zita, beraz, apirilaren 24an. ■ I.E.

12 > 'Mokaua' dastatzeko azken aukera

Zuzeneko musika eta irudiak uztartzen dituen Logela Multimediaren 'Mokaua' azkenengoz eskainiko dute asteburuan, Elorrion.



13 > Sarean Sun Sun antzezlan

Miren Larrea zornotzarra San Agustinen izango da asteon Bartzelonako Anita Maravillas txotxongilo taldearen *Sarean Sun Sun* emanaldiarekin.

MUSIKA> EMANALDIA

'Mokaua' dastatzeko azken aukera eskainiko du Logela Multimedialak

Elorriko Arriolan arituko dira Logela Multimedialakoak, apirilaren 18an 22:30ean hasita

Orain urte bi euren herrian, Elorriko Arriola aretoan, egin zuten Mokaua ikuskizunaren lehenengo emanaldia Logela Multimedialako sortzaileek. Azken emanaldirako ere Elorrio eta Arriola aukeratu dituzte, euren etxetzat ere badutena 2000. urtean euren ibilbideari ekin ziotenetik lagun izateagatik.

Duela bi urteko Durangoko Azokan kaleratu zuten CDa eta DVDa taularatzten eman dituzte urte bi *Mokaua* ikuskizunaren emanaldietan. Hiru musikariek abestiak jotzen dituzten bitartean irudiak nahasten ditu zuzenean

Imanol Garaizabal bideo-jockeyak. Ikuskizun interaktiboa osatzen dute emanaldi bakoitzean, eta musika eta irudiaren lengoaia baliatzen dute horretarako. Kontzertu soil bat baino gehiago, 11 abesti eta 5 esketx umoretsu dira *Mokauaren* osagarri nagusiak.

Zuzeneko musika eta irudiak baliatuz sortzen dute ikuskizuna

Elorriko azken emanaldian, berezitasun eta nobedade lez, bi urtetan *Mokaua* eszenaratzen jardun dutenez gainera, beste musikari bat gehiago arituko da: batera-jotzaile azpeitiarra izango da zuzeneko musika eskaintzen.

Beste ziklo batean

Zapatuko honekin emango dute amaitutzat bi urteotan Euskal Herriko antzokietan 40 emanaldi inguru eskaintzeko aukera eman dien *Mokauaren* zikloa oraingoz, nahiz eta kantak konposatzen jarraitzen dutela ere aitortu diguten Logela Multimedialakoek.

Lau musikari izango dira oholtzan Arriolako azken emanaldian

Zaragozako Circle of Trust taldearekin, *Papiro... Flexia* izeneko ikuskizuna zuzenean eskaintzen dabilta orain: breakdance eta multimedia ikuskizuna herri eta hirietan erakusten. Bilboko Dantzaldia jaialdian aurkeztu zuten ekainean *Papiro... Flexia*, aurreko lanek bezala, interakzioa zutabetzat duen ikuskizuna. ■I.E.



ARTEA> ERAKUSKETA

Bosteko erakusketa ibiltariaren geldialdia Zelaieta Zentroan



Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Basauri, Getxo eta Leioa udalerriek antolatu duten Bosteko erakusketa ibiltariaren aurtengo edizioan Dora Salazar, Begoña Zubero eta Jorge Garcia artisten lanak dabilta aipatutako herrietan erakusten. Kasu honetan Zornotzako Zelaieta Zentroan izango dituzue lanak apirilaren 25a arte ikusgai, 08:00etatik 22:00etara arteko ordutegian.

1998tik, berrogeitalau euskal artista bildu ditu, guztira, Alicia Fernandez historiagile eta arte-kritikariak Bosteko erakusketa ibiltari honen parte izateko eta euskal sortzaileek ekoiztutako gaur

egungo artearen ibilbidearen azterketa egiteko, eta, noski, lan hori herritarren begibistara ipintzeko. Euskal Herrian sortzen den arte garaikidearen erakusleho ibiltaria izateko helburuz sortu zen 1998an, eta helburu horrekin darrai Bosteko erakusketak.

Arte arloan bide luzea egina duten hiru artista gazteren lanak bildu dituzte: Dora Salazar eskultore altsasuarrarenak, Begoña Zubero argazkilari bilbotarrarenak eta Jorge Garcia margolariarenak. Hiru artistok "giza irudiak" eskultura, argazki eta pinturan zelan islatzen dituzten ikusgai da. ■I.E.

"Giza irudiak" gaiaren inguruko argazki, margo eta pinturen bilduma

GEURE DURANGALDEA



Fermin Barcelo
Irakaslea

Iurretako San Migel elizaren patroiak

Lehendik ere esana dugu Iturrizak bere liburuan atentzio berezia eskaintzen diela beti elizen kontuei. Iurretaren kasuan ere bada hau, jakina. Ideia bat izan dezazuen: Iurretako deskribapenari, guztira, 6 paragrafo edo lerroalde eskaintzen dio; bada, horietatik 4 eliza kontuei dagozkie.

Patroiek beraiek aurkezten eta ordaintzen zizkieten bildutako zergak abadeei

Hona hemen, horrelako paragrafo batetik hartutako zatia, San Migel parrokiari buruz: "*Para el servicio de dicha Iglesia hai tres Beneficiados de igual racion presentados por las hijas del Conde de Moriana, como Patronas Mercenarias reallengas con el gozamen de decimas que importan vnos cinco mil reales anuales.*"

Zergak, beraz, (5.000 erreale duela 200 urte) patroientzat. Eta patroiek beraiek aurkezten eta ordaintzen zieten abadeei; hiru abadeei, kasu honetan, eta hiruak soldata berdinez.

Baietz patroiak hiru ogi baino gehiago jan Iurretako San Migel elizaren kontura!

Elizaren konponketa ere patroien ardura zen, baina batzuetan, itxuraz, ez zuten ardura hori betetzeko gogo handirik erakusten. Horrelakoe-tan, inoiz, erregeak berak jarri behar zuen ordena apur bat. Adibide bat, Iurretako San Migel elizan duela 400 urte:

"*Elaño de 1606 no rendian las decimas de Yurreta mas de 2200 reales, con cuia tercia parte mando el rey Don Phelipe 3.º á D.n Fernando Urtado de Zal-dibar Patrono que a la sazón hera reparase dicha Iglesia por hallarse sin pulpito, ni candeleros, con solo vna vinagera de estaño, tres Corporales, quatro casullas ajadas, y vna Sorora por Sacristana con tres panes de racion cada Semana.*"

Astero-astero, beraz, hiru ogi eskas serorarentzat. Baietz patroiak hiru ogi baino gehiago jan Iurretako San Migel elizaren kontura!

ANTZERKIA > ELKARRIZKETA

“Harizko marionetak erabiltzea eta lanaren protagonista nagusiak sorginak izatea nahi genduen”

Txotxongiloak heldu zein umeendako sortzen ditueen tailerrean topatu dogu **Miren Larrea** zornotzarra Badalonan. Domeka honetan, 18:00etan, San Agustinen ikusgai izango den ‘Sarean Sun Sun’ lana entseatzen izan da egunotan bere taldeko lagunekin



Zer lan entseatzen zabilz orain Katalunia aldean?

Bartzelonan orain 4 urtetik bizi naz, eta momentu honetan orain gitxi estreinatu genduen *Sarean Sun Sun* muntaia entseatzen gabilz. Hemen emanaldi batzuk daukaguz, eta horretan buru-belarri sartuta gagoz orain, eta Durangora begira gauzak antolatzen be bai.

Zornotzan egin zendueen obra- ren estreinaldia.

Bai. Azaroan egin genduen estreinaldia, eta Zornotzan zer-bait estreinatzen genduen lehenengo aldia be izan zen. Oso pozik geratu ginen, oso ondo irten zelako guztia.

Zelako harrera izan eban?

Publiko guztiendako egiten dogun lehenengo ikuskizuna da *Sarean Sun Sun*. Familia osoak, adin guztietako jenteak disfrutatu leiken lana da aste-buru honetan Durango San Agustinerak dakarguna.

Umeei be zuzendutakoa bainasorginei buruzkoa da lana...

Bai, eta oso harrera ona egiten deusie umeek lanari: sorginak, magia eta daukan misterio pun-

tu hori oso ondo jasotzen dabe umeek. Ez da beldurra, baina misterio puntu hori gustuko izaten dabe hurrek.

“Adin guztietako jenteak disfrutatu leiken lana osatu gura izan dogu”

“Sorginak, magia, eta misterio puntua oso ondo jasotzen dabe hurrek”

Zelan egiten dozue Anita Maravillas taldean lan?

Betiko moduan, muntaia hau be lan kolektibo baten emaitza da: gure planteamendua da beti, tailerretik hasita, konpainiaren lana izatea; harizko marioneten konstruktzioa, ideia, zuzendaritza, iluminazio planoak eta lan guztiak lau kideek osatzen dogun tailerretik ateratzen da. Holan jaio zen lan hau be.

Lau lagunek osatu zendueen Anita Maravillas taldea?

Valentina Raposo, Mireia Nogueras, Iam Agorria eta neu gara Anita Maravillas. Lauron artean planteatzen doguz ikuskizunak, eta bakotzak taldean bere rolak beteaz, holan sortzen dira antzezlanak.

Denok zabilze antzezle be?

Hiru gara lan honetan antzezle: guztira lau aritzen gara, aktore eta manipuladoreak kontuan hartuta. Iam soinuagaz eta argiekin laguntzen deusku.

Prozesu luzea izango da hala- ko lan bat sortzea...

Bai. Ideia sortzen denetik oso prozesu luzea izaten da: gainera, marioneta asko dagoz ikuskizunean kasu honetan. Horregaitik uste dogu oso garrantzitsua dela tailerraren funtzioa.

Panpinak egitea da lanik gehien eskatzen dauena?

Lan honetan erabiltzen doguzen harizko titereen kasuan, lana ez da panpinak sortzea bakarrik, panpinen mugimenduak kontrolatzen ditueen mandoak egiteak be lan handia emoten dau, eta oso prozesu geldoa

da. Buruhauste asko izaten dozuz, eta ordu asko egon behar izaten da gura dozun mugimendu zehatza lortzeko.

Gidoi baten arabera eraikitzen dozuez panpinak be?

Bai, nahiz eta kasu honetan testu askorik ez dagoen. Nahi genduen harizko marionetak erakustea zen, eta sorginak izatea lanaren protagonista.

Lan honetan barneratuta noiz- tik zabilze?

Urtebete iraun dauen prozesua izan da hau: urte bat daroagu lan honetan guztiz sartuta. Gure proiektu luzeena izan da, harizko marionetak erabiltzea hautatu dogulako, harizko marioneten espresioa lortzeak be lan asko eskatzen dau eta.

Eta panpinak manipulatzeko teknika menperatzea?

Harizko marioneta bakotxa barria da: nahiz eta zuk haria kontrolatu, marioneta bakotzak bere ikasbidea dauka.

Bartzelonan ikasi zenduen?

Rabaleko tailer batera ailegatu nintzen, harizko titereak lantzen ziren tailer batera. Euskal

Herrian bestelako lanak egiten nituen, eta haria han ezagutu neban. Marioneta bat eraikitzeko asmoz heldu, eta Bartzelonan ezagutu nituen orain konpainiako kide ditudanak.

Aukera gehiago dago Bartzelonan halako lanetarako?

Bai, baina azken finean hautu pertsonala da guztia: harizko marionetak lantzen aritu den bi belaunaldiko jentea dago hemen; mundu guztiko jentea. Askoz informazio gehiago eta hiri batek daukan mugimendua daukazu Bartzelonan. Nire ideia ez zen geratzea, eta azkenean bertan geratu naz: tailerra daukagu orain Badalonan.

Eta zelan hurreratu zinen mundu honetara?

Ipuin-kontalaria nintzen lehenago, eta nire kontura zein editorialekin egiten nituen saioak. Aitor Ormaetxea titiriteroa ezagutu neban, eta elkarrekin hasi ginen Elgoibarko Taupada taldean lan egiten. Ikastaro bat egitera etorri nintzen Bartzelonara, eta ez naz bueltatu.

“Harizko titereak eraikitzen ziren tailer batera heldu nintzen”

“Egunerokotasuna emoten deuskulako da oso inportantea tailerra izatea”

Egunero egiten dozue Badalonako tailerrean lan?

Planteamendua horixe zen: tailerra eduki arte astean birritan bakarrik egin ahal genduzen gure lanen entseguak. Hurrengo pausua eguneroko lana sortzea zen: astelehenetik barikurakoa, tailer bat izatea eta bertan lan egitea; egunerokotasun bat lortzea.

Titereek zer eskaintzen dabe?

Haria dituen limitazioetatik aldenduta, oso ikuskizun bisuala sortzea da lortu doguna; marionetak oso landuta dagoz, eta papin guztien bitartez konstatzen da istorioa. Lan handia eskatzen dauen lana da.

Zergaitik sorginen istorioa?

Oso erakargarriak direlako pertsonaia lez, eta gure ikuspuntua emon gura genduelako sorginei buruz. Fantasia eta magia bada go, baina sorgina emakume moduan be agertzen da. Umeendako ikuspuntu barri bat izan leteke: ipuin askotan agertzen den sorgin gaiztorik ez da ageri hemen. Sorginak ezberdinak dira, pertsona guztiak ezberdinak garen moduan. ■ I.E.

IPUIN KONTALARIAK> SAIOAK

Munduko ipuin kontalariekin hitzorduak Elorrio eta Berrizen

Apirilaren 22an Berrizen eta apirilaren 23, 24 eta 25ean Elorrian izango dira hainbat herrialdetarik etorritako ipuin kontalarien emanaldiak

Berrizen lehenengoz antolatuko dute aurtengo Ahozko-tasunaren Jaialdia izenarekin ezagutzera eman dutena. Apirilaren 22an, 19:30ean, egin dute Kultur Etxean munduko ipuin eta kontalariekin hitzordua.

Jatorri libaniarra duen baina frantzian bizi den Theresa Amoon eta Jota Villaza ipuin kontalariek arituko dira Berrizen. Bere herrian eskolako maisua eta antzerkigilea den Villazak, Kolonbiako folkloreko ipuinak kontatuko ditu, eta bizi izan den hainbat lekutako istorioak ekarriko ditu Amoonek.

Libano eta Kolonbiako kontalariek arituko dira Berrizko kultur etxean

Haurrak lehenengo

Elorrian ez da lehenengo aldia izango Munduko Kontu Kontalarien Jaialdia antolatzen dutena, eta hainbat egunetarako saioen programazioa zehaztu dute apirilaren azken astebururako. Txikienei zuzendurikoa da jaialdia abiatuko duen saioa: Paraguaiko Marco Flechakontalararen ahotsak inauguratuko du Arriolako jaialdia apirilaren 23an, 12:00etan.

Eskolako haurrak izango dira saio horretako entzuleak, eta *Tierra colorada* ipuin kontaketa saioa eskainiko die Flechak haur elorriarrei. Guaranien kondairak eta Hegoamerikako istorioak oinarrian dituzten ipuinak ekarriko ditu paraguaiarrak Elorriora.

Apirilaren 24an ere, eskolako entzulegoarentzako espreski prestatutako saioa izango da Arriolako Munduko Ipuin Kontalarien Jaialdian: Argentinako ahots bat

izango da egun horretan umeei imajinazioa zabaltzeko hitzak ekartzen: Ines Grimland argentinarraren ipuinak izango dituzte 13:00etan hasita. *Por una pasión* izeneko ikuskizunean, maitasunari eta grinari buruzko istorioen bilduma eskainiko du Arriolan Ines Grimland kontalariek.

Eskoletako entzuleak hartuko ditu Arriolak lehenengo egunetan

Ikuslego zabalarentzako prestatutako orduategian izango dira jaialdiko azken bi saioak: apirilaren 24an, 22:00etan, irakurri edo asmatutakoa kontatzen arituko dira Emma Lopez valentziarra eta Jota Villaza kolonbiarra.



Apirilaren 25ean, 20:00etan, jatorri libaniarra duen Theresa Amoonek *De una tierra a otra* eta Albert Estrenge kataluniarrak *El sexo no bendito* ipuinak eskainiko dituzte, Munduko Ipuin Kontalarien Jaialdia amaitzeko. ■I.E.

Hainbat herrialdetako sei kontalari izango dira Elorrioko jaialdian

LITERATURA> LEHIAKETA

Julene Azpeitia literatur sarien deialdi berria

Apirilaren 24an zehaztu dute ipuin, olerki edo bertsoak lehiaketara bidali ahal izateko muga

Durango Udalaren Euskara Sailak urtero antolatzen duen Julene Azpeitia ipuin eta bertso lehiaketaren aurtengo edizioan parte hartu eta epaimahiak banatuko dituen sarietakoren baten jabe egin ahal izateko, apirilaren 24a arte zehaztu dute izena emateko epea: Durango Udaleko Euskara Sailaren Barrenkale 17ko helbidera bidali daitezke olerki, ipuin edo bertsoak.

Lehenago argitaratu bako eta euskaraz idatzitako lanak izatea da antolatzaileek ipintzen duten baldintza nagusia, baina parte hartzaileentzako intereseko izan dai-

tezkeen xehetasun gehiago www.durango-udala.net helbidean topatu daitezke.

Durango eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren 11 eta 18 urte arteko haur eta gazte durangarrek hartu dezakete parte; adin nagusikoa den beste edonork ere bai.

Ekainaren 1ean emango ditu jakitera 2009ko Julene Azpeitia lehiaketako irabazleen izenak epaimahiak, sariak ematearekin batera. Haur eta gazteentzako liburu sorta izango da saria, eta diru sariak izango dituzte adin nagusiko parte-hartzaileak. ■I.E.

MUSIKA> LEHIAKETA

Bakarrizketa eta kantautoreen hirugarren Basoa lehiaketa

Maitzaren 31a artekoa izango da lehiaketan izena emateko epea

Hirugarren edizioa izango du aurtengo Matienako Basoa tabernan antolatzen duten bakarrizketa egile eta kantautoreen lehiaketak. Uda partean izango diren emanaldietan euren kanta eta kontuak oholatza gainean defendatu gura dituztenek izena emateko aukera dute, maiatzaren 31a arte.

Matienako Basoa tabernan bertan eman ahalko dute interesdunek izena, eta lehiaketako emanaldien ondoren bueltatuko zaien 50 euroko fidantza utzi beharko dute parte hartu ahal izateko.

Behin lehiaketa hasita, zozketan egokitzen zaien egun eta orduan, gehienez, 10 edo 15 minu-

Matienako Basoa tabernan bertan eman daiteke izena

Lehenengo bien artean 1.000 eta 500 euroko sariak banatuko dituzte

tuko zuzeneko emanaldia egingo dute parte-hartzaileek tabernan.

Maiatzaren 21ean hasita, egunetan izango dira lehiaketako zuzeneko emanaldiak: bakarrizketa egile bi eta kantautore bi arituko dira egun bakoitzean. Epaimahiak hautatzen dituen lau lagunaren izenak uztailean emanango dituzte jakitera, eta horien arteko finala irailerako dute antolatzaileek aurreikusita.

Kantautore eta bakarrizketa, 1.000 euroko lehenengoa eta 500 euroko bigarren sariak banatuko dituzte, eta nekazal etxe batean asteburu-pasa izango da hirugarren saria. ■I.E.

PLATERUENA Mamu musikari Durango Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 18 19:00etan
DANTZALDI BILTARIA 2009
AIKO TALDEA
DANTZALDI ERROMERIA. Sarrera doan.

APIRILAK 23 20:00etan
VITAL REMAINS (USA) + ORDER
ENNEAD + SLUDGE + TRIBULATION
KONTZERTUA. Sarrera: 15-18 euro.

APIRILAK 24 22:00etan
RUSSIAN RED
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 17,20-20 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

SAREAN SUN SUN

Anita Maravillas Teatro (Catalunya)

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Apirilak 19 igandea 18:00etan

HITZ

Liburu

11:54 600 07 76 Artekale, 14 Durango



Udaltasuna **matxakatu**
Taraka: **matxakatu** + **taraka**
Data: **matxakatu** **2014** **1994**
Adina: **2014** **5** **2014** **4**
Perezia: **matxakatu** **2014** **4**
matxakatu **2014** **2014** **4**
Elkarte antolatzaileak: **matxakatu**
(matxakatu): **matxakatu** **(matxakatu)**, **matxakatu**
(matxakatu) **2014** **matxakatu** **(matxakatu)**
ERIKINZA **matxakatu**: **matxakatu**, **matxakatu**
matxakatu **matxakatu**

Tel. 94 620 35 40 / 94 620 19 18



AMAREN EGUNA



maiatzak 3







zilarrezko
diseinugintzarako
artisau-tailerra eta
enkarguzko lanak





Iturriza, 21 • 48240 Berriz
e-mail: nkjoyeria@yahoo.es
Mug.: 661 332 446





Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - 48200 Durango
94 620 18 93 - Faxe: 94 681 64 03



EROSKI

zurekin **ABADIÑO**



11,35 0,60€



21,59€

**eguzkitako
betaurrekoak**



21,38 1,12€

Babestu
gehien
maite
duzuna

%50 erainoko
deskontua

EROSKI ordainketa-
baldintza bereziak
OPTIKAN



3
ALDITAN
4500-4500
4500-4500

6
ALDITAN
4500-4500
4500-4500

10
ALDITAN
4500-4500
4500-4500



ERITZIA[>]

Gutunak @

Euskara hizkuntza gorrotatua

Nire izeko eta osaba, baserriko seme-alaba euskaldunak, Gas-teizera bizitzera joan ziren beharragatik. Umeak izan zituzten, eta euskara ez erakustea erabaki zuten, beraz, orain nire lehen-gusuek ez dute ezer ulertzen euskaraz.

Nire lehengusuen umeek, batzuek ulertzen dute euskaraz, baina berba egiteko orduan ezin dute, eta zaharrenak bedera-tzi urte ditu, gazteenak hiru.

Duela bi aste bazkaria izan genuen, eta nire lehengusuei galdetu nien ea zergatik ez duten euskara ikasten. Ez al diren animatzen, beraien arbaso denek euskaraz hitz egiten zutela, eta gauza asko galtzen dituztela beraien ama hizkuntza ez jaki-tean. Ezin bertso bat ulertu, euskal kanta bat ere ez dute eza-gutzen, idazlerik ere ez, hizkuntza beraren loturarik ere ez.

Erantzuna ondorengoa izan zen: euskara eta ingelesa hiz-kuntza zatarrak direla. Espainola, frantsesa edo italiera askoz ere politagoak direla, eta nahiago hauetako bat ikastea euske-ra baino. Eta tristea dela Euskal Herrian euskara ikastera behar-zen delako. Ingelesa ikastera behartzen denik ez zidaten esan.

Orduan, euskara inposatzen bada, zergatik ditut egunero eta orduro euskaraz hitz egiteko hainbeste arazo? "No te entien-do" erantzun eta lasai asko geratzen dira edozein dendatan edo tabernatan. Euskal musika zein lekutan entzuten da beste abes-ti guztiekin batera? Europako beste herrialdeetan halako ara-zorik ba al dute?

Ni, nire herrian atzerritar sentitzen naiz euskara erabiltze-an. Afrikatik edo Rusiatik etorri direnak bezala, kanpoko hiz-kuntza arrotz bat hitz egiten dudala ematen du, eta, gainera, aurpegi txarrak ikusten ditut ia egunero.

Ea gure seme-alabek herritar denekin euskaraz, frantsesez eta espainolez hitz egiteko aukera izaten duten, zazpi euskal herrietan jaioz gero. Bestela, herri bereko senargaia etxera ekar-tzen dutenean euskaraz egin ezinik geldituko gara berriro fami-li osoa.

Eta nik etxean hizkuntza bien erabilera eskatzen dut, mese-dez, ez espainolarena bakarrik.

Nagore Iriondo (Durango)

Dispertsio politika hiltzaileari stop!

20 urte luze dira dispertsio politikari hasiera eman zitzaione-tik, 20 urte luze, sufrimenduarenugarra dispertsioz elikatzea erabaki zutenetik.

Etsaiak, PNVren laguntza osoarekin, mendeku gisa diseina-tutako guda estrategia baten barruan kokatu behar dugu erabaki hau. Berauen helburua garbia zen: preso politikoak isolatzea, herria-ren berotasunetik urruntzea eta euskal preso politikoen txikitzea.

Gaur egun, esan dezakegu mendeku politika hiltzaile honek politikoki porrot egin duela. Ez dituzte bete aurrez ikusitako hel-buruak.

Kolektiboak osasuntsu jarraitzen du, negurik gogorrean ere; kolektiboak herritarren beroa sumatzen du, dugu, negurik gogorrean ere; kolektiboak agente politiko handi bat izaten jarraitzen duelako, nahiz eta ardi moztaroz moztarotzen diren otsoei ez gustatu.

Hau horrela dela ahaztu barik, ozen oihukatu behar ditugu dispertsio politika hiltzailearen ondorioak. 800 euskal preso poli-tikoon hurbilekoak errepidera ateratzera kondenatuta daude, (zaudete), beraien lagun eta senideak ikusteko.

Odoluste ekonomikora kondenatuak, denbora asko errepi-dean pasatzera kondenatu eta, zoritxarrez, bizia husteru konde-natuak.

Honi guztiari, dispertsio politika hiltzaileari, "Aski da!" esa-teko ordua heldu da, berau aurrera eramaten dutenak seinala-tuz eta beraian presioa eginez. Beraien erantzukizunaren jabe izan behar dira, egin duten guztia barkaezina delako.

Asteburu honetan ez naiz hilko.

Apirilaren 17, 18 eta 19an euskal preso politikook bisitei uko egingo diegu.

Eneko Zarrabeitia (Cédex, Frantzia)

Klik batean @



Zaborrontzia espaloian

Durango Zubiaurre kaletik honako argazki hau bialdu deus-kue. Irudian ikusten den legez, kontenedorea espaloian erdi-erdian jarrita dago. Inguru honetatik umeen karroekin edo gur-pildun-aulkiekin ibiltzen direnak kexu direla jakinarazo deus-kue, "hau ez delako zaborra batzeko lekurik egokiena". Metro batzuk aurrerago beste kontenedore bat dago espalo gainean, "baina harek ez dau hainbesteko traba egiten, leku gehiago dagoelako".

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Juanito Gallastegi

Aukeratu beharra

Hau ala bestea. Ezin biak bate-ra. Bizi garenoi uneoro jartzen jaku aurrean aukeratu beharra. Goizean jaikitzen garenetik has-ten gara aukeratzeko. Zer oine-tako, zer jantzi jarriko ditut oine-tan eta soinean. Aukeratu egin behar, baldintzatuta ez bagagaz. Oinetako bakarrak eta jantzi bakarrak badaukadaz, baldin-tzatuta nago; ezin aukeratu.

Zer ikasketa egingo dot? Zein izango da niretzat lanik egokiena? Aukeratu egin behar, baldintzatuta ez banago, behin-tzat. Non ikasi ez badot, lanik ez badago edo lanerako ezindu-ta banago, baldintzatuta nago. Ezin aukeratu.

Zer bizibide hartuko dot? Ezkongee izango naz bizi guztian ala ezkon-laguna izango dot? Eta hau aukeratzekotan, emaku-mea banaz zer gizonagaz eta gizona banaz zer emakumegaz lotuko naz? Lotzekotan be, zelan egingo dot? Elizaz? Herriz? Ez batez ez bestez? Umerik bai? Umerik ez? Zenbat? Aukeratu beharra hor be, norberak aurre-tik hautatutako edo norbera-gandutako oinarritzko sinesteek eta abiaburuek jartzen deus-kuezen baldintzak aintzat har-turik.

Zer musika mota aukeratu-ko dot entzuteko? Herrikoia? Gehienetan ingeles izenekin aitatzen diren oraingo musika-ren bat? Klasikoak? Eta eureta-tik zeintzuk?

Eta irakurri? Zer hizkun-tzatan? Munduko klasikoak? Gure idazleek idatzitakoak?

Ai ene! Hasi be ez naz egin, eta urteak behar neukezela ikus-ten dot gura neuken guztia egi-teko, entzuteko, irakurtzeko... Alde batera itzi behar mila gauz,, aukeratu egin behar, goitik behera mugatuak garelako. Hori da gehien baldintzatzen gai-tuena: mugatuak izatea. Baina mugatuak izan arren, aukeratu ahal izateak gizakia handi egi-ten dauelakoan nago.



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko apirilaren 17a - 8. urtea - 326 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Ezkontzak, jaunartzeak, enpresa
bazkariak... Eguneko menua, karta,
menu bereziak.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.




Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 19an, 18:00etan ILARGIPEKO KONTUAK

'Sarean Sun Sun' txotxongilo ikuskizuna dakar Anita Maravillas Teatrotik (Katalunia). Nabarkorenaren etxean zeozer dabil gertatzen: sorginak, inxisuak, aztiak, igarleak, alkimistak eta titiriteroak batuko ditu, domekan, San Agustin kulturguneko eskenatokian. Transformazinoak, objektu eta naturaren zein itsaso eta denporaren mende hartzea, ilargipeko hegaldi eta konjuruak... umore eta samurtasunez betekako ikuskizun harrigarria dakarre.

ANTZERKIA

DURANGO

> 'Sarean Sun Sun' (Anita Maravillas Teatrotik), apirilaren 19an, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

BESTEAK

BERRIZ

> 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina, apirilaren 23tik uztailaren 26a arte. Liburuaren Egunagaz bat eginda Topagunea euskara elkartearen federazioak eratuta.



DURANGALDEA

> 'Dispersinoaren Aurka Bira Euskal Herrian' apirilaren 18an helduko da Durangaldera. Auto-karabana 11:00etan hasiko da lurretan, eta Durango, Abadiño eta Atxondo igarota Elorriora helduko da, 13:00etan. Katxue omenduko dabe bertan. Elorriotik 16:30ean irtengo dau, 18:00etan helduz Zornotzara. Bezperan, apirilaren 17an, 20:00etan, kontzentrazioa Durangoko Batzokiaren aurrean. Amaiera ekitaldirako herrialde guztietako karabanak batuko dira apirilaren 19an, 12:00etan, Durangon, Landako Gunean.

IURRETA

> 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina, apirilaren 23tik uztailaren 24a arte. Liburuaren Egunagaz bat eginda Topagunea euskara elkartearen federazioak eratuta.

> 'Iurreta ezagutu' kanpainaren baitan herriko ikastetxeekin hitzartutako bisita gidatuak, apirilaren 23an eta 24an, eta, maiatzaren 14an eta 15ean.

BERBALDIA

DURANGO

> 'El sueño del bebé amamantado' (Euskadiko Esnearen Liga), apirilaren 20an, 18:00etan, Andragunean (Pinondo Etxean)

DANTZA

DURANGO

> Dantza erromeria: Dantzaldi ibiltaria (Aiko), apirilaren 18an, 19:00ean, Plateruenean.

DEIAK

IURRETA

> Hezkuntzagaitiko diru-laguntzak jasotzeko eskari-orriak aurkezteko, apirilaren 20tik maiatzaren 8a bitartean, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean (94 620 03 42 / www.iurreta.net).

DURANGO

> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

IURRETA

> Udaleku finkoa eta ibiltaria eratu ditu Kimuak elkarteak. Uztailaren. Izena emateko Ibarretxe kultur etxean (www.kimuak-elkartea.com / kimuak@kimuak-elkartea.com).

ERAKUSKETA

DURANGO

> Hiart Zamakona. Margoak. Apirilaren 20a arte, Nualan Gunean.

ERMUA

> Marrazkiak. Antonio J. Hernandez. Apirilaren 20tik maiatzaren 3a bitartean, Lobiano kulturgunean.

ELORRIO

> 'Ipuin txotxongiloak'. Panta Rhei antzerki taldearen txotxongiloak. Apirilaren 20tik 30a bitartean, Iturri kultur etxean.



ZORNOTZA

> Amorebieta-Etxanoko Toponi-moak. Apirilaren 20tik maiatzaren 4a bitartean, Zelaieta zentroko erakusketa gelan. Udalerriko auzo, baserri, etxe, baso eta gainerako izenen bilketa-lana, mapak eta argazkiak batzen dira bertan. Aurkezpen ekitaldia, apirilaren 21ean izango da, 19:00etan, auditorioan.

> Bosteko09: Jorge Garcia, Dora Salazar, Begoña Zubero. Apirilaren



25a bitartean, Zornotza Aretoan.

IKASTAROAK

BERRIZ

> Sexualitatea heldutasunean. Apirilaren 15ean hasi eta ekainaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Hezitzailea Miriam Herbón feminista, barreterapeuta eta soziologoa (94 682 40 36 / berdintasuna@berriz.org)

DURANGO

> Aisa-etorkinendako euskara ikastaroak, apirilaren 21etik ekainaren 25a bitartean. Gitxienez 12 eta gehienez 18 lagunekoko taldea osatu behar da. Izena emateko azken eguna apirilaren 17a da,

Udaleko Euskara Sailean (94 603 00 30 / www.durango-udala.net).

> Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritza. Apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina Asensoren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eraturako eskolak, Kurutziaga ikastolan. Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko Artakuso ekodendara jo leiteke edo bestelako honako telefono honetara deitu: 659 990 740 (Oihana).

IPUINAK

ELORRIO

> Munduko kontu kontalariak: Marco Flecha (Paraguai), apirilaren 23an, 12:00etan, Arriola antzokian. Eskolendako saioa.



ZORNOTZA

> Munduko kontu kontalariak: Marco Flecha (Paraguai) + Ines Grimland (Argentina), apirilaren



22an, 20:00etan, Zelaieta zentroko kontzertuetarako gelan. Helduendako saioa.

> Munduko kontu kontalariak: Theresa Amoon (Libano) + Jota Villaza (Colombia), apirilaren 22an, 20:00etan, Zelaieta zentroko kontzertuetarako gelan. Helduendako saioa.



Planet, apirilaren 17an, 23:00etan, Gernikako Arbola plazan.

> Dj festa, apirilaren 17an, 00:00etan, Ateneoan.

> Video partya (play station 2, 3, wii, guitar hero, bateria...), apirilaren 18an, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Gernikako Arbola plazan Errebonbillo kalean.



> Bigarren Eskuko Azoka, apirilaren 18an, goizean zehar; esku pilota partidak, 17:00etan, frontoian, Berrio-Otxoa esku pilota taldeak antolatuta.

> 'Guk be AHTa geldituko dogu' lelopean manifestazioa, apirilaren 18an, 20:00etan.



> 'Mokaua' (Logela Multimedia) multimedia ikuskizuna, apirilaren 18an, 22:00etan, Arriola antzokian. Dantzaldia, Oihergi taldeagaz, gauerdian hasita, Gernikako Arbola plazan.



> Mak (hip-hop) + Monlet (elektropunk), apirilaren 18an, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean

> Chuchin Ibañez + Los Charros Navarros + Raíces Navarras, apirilaren 19an, 18:30ean, Gernikako Arbola plazan. Nafarroako eta Mexikoko jotak.



OTXANDIO

Udabarri jaia

> Gaztetxeen eta gazte asanbladen inguruko eztabaida, 12:00etan, eta triki-poteoa 13:30ean. Bazkaria, 14:30ean, Otxandioko Gaztetxean (txartelak herriko hainbat tabernetan erosi leitezke, 8 euroan).

> Gaztetxe eta gazte asanbladen defentsan kalejira Gaztetxetik irtenda, apirilaren 18an, 18:15ean,

JAIK

ELORRIO

Erreka kaleko jaiak

> Trapatoni Circus Band + Namek



apirileko agenda

Apirilak 19-25-26 • Iurreta Txirrindulari Elkarteak 09:00 Iurreta-Kanpazar-Arrasate-Aramaiona-Kruzeta-Legutio-Barazar-Iurreta 09:00 Iur. -Larrabetzu-Aretxabala-Mungia-Maruri-Urduliz-Unbe-P.Tekn.-Iur. 09:00 Iur.-Areitio-Elgoibar-Azkarate-Azkoitia-Zumarraga-Deskarga-Bergara-Kanpazar-Iur.

Apirilak 21 • Haurren irakurketa Kluba Liburutegian 16:45 (8-10 urte) / 17:45 (10-12 urte)

Apirilak 22 • Helduen irakurketa Kluba Liburutegian 19:00 "Pereirak dioenez" Antonio Tabucchi

Apirilak 23 -Apirilaren 3tik uztailaren 26a arte-
• 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina

Apirilak 24-25-26 • Oromiñon San Marko jaiak 24ean - 19:00 Donien Atxa jasoko da 25ean - Goizean kalejira / 12:00 Meza nagusia / Herri-bazkaria / 17:00 Briska txapelketa (6e) 17:30 Ume dantzak eta sorpresak / Tortilla txapelketa / Luhartz eta txarri harrapaketa 26an - Meza / M.D. Dantza taldearen saioa / Txarri erreza pintxoetan / Asto desafioa / Zozketa

Apirilak 24 • Afaria San Markos sagardotegian Amuriza eta Mañukorta bertsolariek eta Txiri-txiri taldeak alaituta

Apirilak 26 • Mendiko Ibilbideak -08:30ean. Maiztegi Guraso Elkarteak-

IURRETAKO UDALA

Zornotzako Zaparrada batukadak girotuta. **Batukada ekitaldia**, 19:00etan.



» **Pog mo thon taldearen kontzertua**, 23:30ean. Ondoren, **Akerbeltz plaza taldeagaz erromeria**, Enparantza Nagusian.



LEHIAKETA

ABADIÑO

» **Santrokazak iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 17a, Txanporta edo Errota kultur etxeetan, Udaletxean edo Traña-Matienako Udal Bulegoan. Saria: 600 euro. Herriko onenari 350 euro (94 620 36 47 / 94466 94 16 / txanporta@abadiano.org / errota@abadiano.org).

DURANGO

» **Kontakizun laburren lehiaketa.** + Dendak Durango eta lurretako elkarteak eratuta. Gehienez, hiru orrialde bete leitezke, euskaraz zein gazteleraz. Sail bi sortu ditue: 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Sariak: 10 eta 200 euro arteko erosketa-baleak. Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 24a izango da.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra: 'Txina'**, apirilaren 20 eta 27an eta maitzaren 4, 11, 18 eta 25ean, 18:15etik 20:15era, Liburutegian. Aurretik holan

eskatzuz gero, haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteca@iurreta.net).

» **Haur eta gazteendako irakurketa kluba**, apirilaren 21ean, Udal Liburutegian: *Txori kantariak poeta hegalaria*, irakurriko dabe, 16:45ean (8-10 urte), eta, 17:45ean, Juan Kruz Igerabideren *Haur korapiloak* (10-12 urte).

» **Helduendako irakurketa kluba**, apirilaren 21ean, Udal Liburutegian: *El cuento de la criada* (Margaret Atwood), 19:00etan. Apirilaren 22an, barriz, *Pereirak dioenez* (Antonio Tabucchi).

MUSIKA

DURANGO

» **II. Gau Elektronikoa:**



Apirilaren 23an, 20:00etan

VITAL REMAINS
JATORKU
PLATERUENERA

Death metal doinuak gustuko ditueenek Ameriketako Estatu Batuetako Vital Remains taldeagaz hitzordua daukie datorren egunean, Plateruna kafe antzokian. Ia oso-osorik erlijioaren kontrako letrak abesten ditu Tony Lazarok gidatutako taldeak; satanismoan eta apokalipsian eragiten dabe, eta gai blasfemoak erabiltzen ditue. Order of Ennead, Sludge eta Tribulation taldeek be igongo dabe oholtza gainera.

Dj David Medina + Plateruena Residents
Djs: Alain Medina, Ruben Kostas eta Iker Undersound, apirilaren 17an, 23:00etan, Plateruena kafe antzokian.



» **Vital Remains (USA) + Order of Ennead + Sludge + Tribulation**, apirilaren 23an, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian.



» **Malo**, apirilaren 17an, 20:00etan, Heineken Live tabernan.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Zine emanaldia**, apirilaren 19an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'El desafío: Frost contra Nixon'** pelikula, apirilaren 23an, 20:30ean, Zugaza zine aretoan.

ERMUA

» **Umeendako zinea: 'Madagascar 2'**, apirilaren 19an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Zine-kluba: 'Los limoneros'**, apirilaren 23an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

La montaña embrujada
Zuzendaria: Andy Fickman
barikua 17: 19:00 / 22:00
zapateria 18: 17:00 / 19:30 / 22:30
domeka 19: 17:00 / 19:30 / 22:30
astelehena 20: 19:00 / 22:00
martitzena 21: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia

El lector
Zuzendaria: Stephen Daldry
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Lejos de la tierra quemada
Zuzendaria: Guillermo Arriaga
zapateria 18: 22:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 17
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Zapateria, 18
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Etxebarria / Sagastizabal / Unamunzaga / De Diego / Balenziaga / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 19
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Balenziaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Astelehena, 20
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Martitzena, 21
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Eguaztena, 22
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Eguena, 23
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

8 **13° BARIKUA** ☁️
Eguraldi aldakorragaz jarraituko dogu. Aterrun luzeak izango badira be, zaparradak izango doguz tarteka. Haizeak mendebaldetik joko dau. Temperaturek aldaketa handirik barik jarrituko dabe.

7 **17° ZAPATUA** ☁️
Eguraldiak egonkortzera egingo dau, baina euriagaz jarraituko dogu. Ekaitz arriskua txikitzen joango da, baina eguerdi partean iritsiko den fronteak euria ekarriko dau berriro. Temperatura maximoa igoko da.

9 **12° DOMEKA** ☀️

7 **12° ASTELEHENA** ☀️

6 **15° MARTITZENA** ☀️

anboto astekariak Eusko Labelarekin batera **saski bat** zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Santana, 6 • 48200 Durango

KIROLAK >



Kepa Aginako

Asteburuan ekingo diote Bizkaiko Herri Arteko Txapelketako 40. aldiari. 35 herri lehiatuko dira pilotan, zortzi erremintan eta sei zesta-puntan. Durangaldeak zortzi herri izango ditu lehian. Urtero legez, hiru kategoriatan arituko dira: kadeteen, gazteen eta nagusien mailetan.

Pilotan iaz baino herri bi gehiago daude. Lehiara gehitu diren artean, Atxondo dago. Atxondok Mungiaren kontra jokatu du biharko lehen jardunaldian. Behetik hasiko dute txapelketa Abadiñok, Durangok, lurretak eta Elorriok ere. Lurretak Getxo jasoko du etxean. Beste hirurek kanpoan jokatu dute: Urduliz-Abadiño, Zalla-Durango eta Barakaldo-Elorrio. Joan-etorriko deman irabazle suertatuz

Herri artekoa hasiko da

gero, bigarren koskara igaroko dira. Han zain daude beste bost talde, tartean Berriz.

Mallabia faboritoen artean

Final zortzirenetakoa hirugarren koskan iaz ondoen ibili ziren taldeak sartuko dira txapelketan. Faboritoen multzoan zain dauden artean Mallabia dago. Iaz Markinak kanporatu zuen finalerdietan; gero Markinak txapelketa irabaziko zuen, finalean Galdakao menderatuta. Gernika, Igorre, Lezama, Lemoa eta Zeanurik osatzen dute iaz onenak izan zirenen zerrenda.

Finalak ekainaren 28an jokatu dira. Tokia ez dago oraindik erabakita, baina Durangaldeko pilotaleku batean jokatu direla jakinarazi dute.

Lurretak eta Atxondok etxean hasiko dute txapelketa bihar

Erremintan Durangaldeak ez du ordezkari; bai, ordea, zesta-puntan. Parte hartuko duten sei herrien artean Durango dago. Lehen jardunaldian Getxoren kontra jokatu dute etxetik kanpora. Zestako finalak maiatzaren 30ean jokatu dira Durangoko Jai-Alai pilotalekuan. Egun horretan bertan ospatuko da Pilota-gazte jaia ere. Erremintako finalak ekainaren 26an dira. ■ J.D.

24 Pradera eta Guti omenduko dituzte

Mikel Praderak eta Fran Gutierrez "Guti"-k txirrindularitza profesionala utzia dute; bihar Zaldibarren omenaldia jasoko dute urteotan jarraitu dituzten zaleen partetik.

25 Bizikleta eta historia uztartuz

1081.urtean Rodrigo Díaz de Vivar "Cid"-ek Gaztelatik kanpora egindako bidea oinarri hartuta, mendi bizikletako hiru ibilbide antolatu dituzte hiru asteburutan.

“Inplikazinoa eta sakrifizioa falta jake gaur egun gazteei”

Lagunek eta zaleek Mikel Pradera eta Guti omenduko ditue. 11:30ean da hitzordua plazan. Gero, bazkaria dago Goierrin.



Bizikleta eskegi dute Mikelek eta Gutik. Judit Fernandez

Herritarren eta zaleen omenaldia jasoko dozue bihar.

Mikel Pradera. Bai, eta denei oso eskertuta gagoz. Egia esan, guk ez dakigu ezer askorik...

Fran Gutierrez. Hantxe egongo gara, baina, ordurako.

Zu, Mikel, txirrindulari prezia-tua izan zara gregario lez, bai-na ez dozu garaipenik profesio-naletan. Anbizino falta?

M.P. Batzuetan anbizino falta izan da, bai. Dena dela, neure burua langile moduan ikusi dot beti. Norberarendako polita da lehen hamarretan egitea, baina taldearentzat ez dau balio. Urte askoan maila ona eta erregularra mantendu, talde onetan egon eta taldeko garaipenak lortzen lagundu dot. Horrek poza eta ilusinoa emon deust.

Zu, Guti, irabaztailea izan zara. 2002an lesino batek denboraldia galduarazi eutsun ia, bai-na itzuli eta Munduko Txapelketan bigarren geratu zinen.

F.G. Buruan kolpe latza hartu neban, eta saiheutsak eta klabikula apurtu nituen. Halan be, irabaztea neban helburu, eta beroan bigarren postua dezepzinoa izan zen.

Gutziz ezbardinak zarie iza-eraz, antza.

M.P. Bai, ni Mundialean izate hutsa-gaz pozik egon naz. Baina Guti

sprinterra zen, eta beste mentali-dade bat daukie: begiz jota daukien lasterketarako ehunik ehunean prestatzen dira, eta garaipena bakarrik daukie buruan. Ni lako txirrindulariek, barriz, maila ona, onena ez izanagaitik, mantendu behar dabe denboraldi osoan zehar.

Guti, profesio-naletan ez dozu espero zen ibilbidea izan. Zergaitik?

F.G. Mundialaren aurretik aurrekon-tratu bat sinatu neban Portugalgo talde batek, baina Cafés Baquék talde profesio-naletara eta hantxe geratzea erabaki neban. Gero, talde profesio-naletara desagertu zenean, afizionatueta jarraitu neban beste bi urtean.

Beste eskaintzarik jaso ez izana harrigarria egiten jat .

F.G. Mundu honetan, arlo guztietan lez, edo gustuko zaitue edo ez zaitue. Antza, ni ez naz denen gustukoa izan, eta ez deuste aukerarik emon. Dena dela, hori guztia iragana da eta nik aurrera begiratzten dot.

Zu zer taldetan ibili zara gus-turen, Mikel?

M.P. Denetan, salbuespen barik. Manolo Saiz, Eusebio Unzu... gatxa da bat aukeratzea. Behar-bada, Ruben Gorosperi estimu bere-zia deusat.

Izen handiak aitatu dozuz. Horrengandik ikasia irakas-ten be bazabilz orain.

M.P. Bai, Euskal Herriko Federa-zioan kadeteekin lanean nabil. Urte-etan ikasitakoa eta pilatutako espe-rientzia gaztetxoei erakutsi eta apli-katu gura deustet.

M. Pradera:
“ Taldeko langile legez ikusi izan dot neure burua ”

Txirrindularitza ibilbidean, zegaz geratzen zarie?

F.G. Denagaz. Afizionatueta-ko sasoia polita da; ezagutzen den jen-tea... Profesio-naletan lehenengo lasterketa da inpresino handiena eragiten deusuna. Gero ohitu egi-ten zara. Baina telebistan ikusita-ko txirrindulariak bertatik bertara ikustea itzela da: Museeuw, Taffi... zelako hankak daukiezen!

M.P. Nik nire aitaren eta osabaren irudia gordetzen dot. Asko lagun-du deuste. Gero, Tourreko gailu-rretan gora eurak be hantxe ikus-tea sentzazino berezia da: “Begi-tu, hemen nago, lortu dot, eta zeuei esker be bada”.

F. Gutierrez:
“ Gazteei gaur egun zirt edo zart egitea falta jake ”

Zuek joan zarie eta gazteak dato-z atzetik. Txirrindularitza barrutik lehenago lez bizi da?

M.P. Denei ez, baina askori sakri-fizioa eta konpromisoa falta jake. Ez daukiez ideiak garbi, gure sasoian geunkazen legez.

F.G. Afizionatueta-ko denbora luzea delakoan dagoz asko, baina urte-ak arin joaten dira eta gauzak ondo egin ezik aukera galtzen da. Zirt edo zart egitea falta jake.

M.P. Nik bizikleta batean lanerako erreminta ikusten dot. Aitak seme-ari bizikleta bat erregaletan badeu-tso, inbertsino bat ikusten dot. Gaur egungo gazteek jolas moduan hartzen dabe.

Entrenamenduetako makina bat anekdota izango dozue.

M.P. Behin taldeko bati, txirrindu-lari profesio-naletara, gorpila zulatu jakon. Bizikletari begira-begira gera-tu zen luzaro. Azkenean, esan eus-kun: “Ez dakit gorpila aldatzen”. Pro-fesio-naletara, eta gorpila aldatzen jakin ez! Barreak bota genduzen. ■ J.D.

Unai Etxebarria
 •Txirrindulari ohia



Trebea eta langilea

Mikel eta Guti txirrindulari onak eta pertsona hobeak direla esateko aukera paregabe haxe aprobetxatu gura dot, biekin denpora eta momentu on asko igaro ditudalako.

Txirrindulari ibilbidea latza eta laburra izateaz gainera, denbora labur hori arin joaten dela kon-turatzen zara. Oraindino gogoan ditut Euskadi taldean Mikelekin batera emondako hasierako urratsak, eta denboraldiz kanpo egiten genduzen eskapadaxoak (ehiza, mendia, arrantza...).

Guti txirrindulari azkarra eta lehiakorra zen, eta bere trebetasuna Munduko Txapelketan bigarren eginda erakutsi eban. Trebea bakarrik ez, eguneroko entrenamenduetan atsegina iza-teaz batera beti laguntzeko prest zegoena zen.

Bestalde, Mikel txirrindulari langilea eta tal-degizon garrantzitsua izateaz aparte, pertsona eta lagun lez ezin hobea dela segurtatu neike.

Mila aldapa gora eta beheara, hainbat eta hainbat kilometro egin ondoren, horreetako batean sorturiko irudi bat jatort burura oraintxe; Tourreko etapa menditsu batean, Roseland ize-neko mendatean, Mikel tropeletik tiraka jarri zen, eta bere taldeburua zen Belokigaz eta beste gitxi batzuekin bakarrik igaro eban tontorra.

Bizitzan gertatu ohi denez, denak dauka amaiera; guri jagokunez, txirrindularitza bigarren maila batean itzi dogu, eta orain lehentasuna daukien bestelako zereginetan gabilz. Zeregin barri horreetan zortetik onena opa deustet; seguru horri be aurre egingo deusagula.



• **Izen-abizenak:**

Mikel Pradera

• **Nongoa:** Mallabia (34 urte)

• **Ibilbidea:** 11 urte profesio-naletan; Euskaltel (1999-2000), ONCE-Eroski (2001-2003), Caisse d'Espagne-Illes Balears (2004-2006), Benfica (2007-2008)

Prestua, langilea, fina... gregario lana zuzen burutzeko behar diren dohain guztiak izan ditu Praderak. Argi izan dau bere funtzinoa zein zen, eta profesio-naletan lasterketarik sekula irabazi ez arren makina batek jasoko zituen besoak mallabitarraren lanari esker. Pertsonalki zelakoa den Mikel? Gutiren arabera: “Beti laguntzeko prest dagoen laguna da. Izan leiteke festara joateko zein arazo bat konpontzeko. Jaietarako zein hiletetarako. Beti ondoan egoten da, eta beti irribarrea ahoan daukala. Hori asko eskertzen da”.



• **Izen-abizenak:** Fran

Gutierrez, “Guti”

• **Nongoa:** Zaldibar (28 urte)

• **Ibilbidea:** Cafés Baqué 1999tik 2006ra. Horreetako urte bi profesio-naletan (2003 eta 2004)

Bizia, indartsua eta irabaztailea. Afizionatueta irabazi daitekeen guztia irabazi eban: Espainiako Kopa eta Espainiako Federazio Rankinga hiruna bider, Euskalduna Torneo birritan, Kantabriako eta Galiziako itzuliak, Munduko txapeldunorde... Palmares miresgarria. Mikelek dino gurago dauela bere taldean kontrakoan baino: “Karte-tan zein edozertan irabaztailea da. Bere sakrifizioarako ahalmena be azpimarratuko neuke. Gaixorik egon arren, beti entrenatzen, ekin eta ekin. Txirrindulari gazteendako ispilu behar leuke”.

Historia eta aisia batuko ditu ‘Ciden Bidea’ ibilbideak

Ciden erbesterako bidea egin ahalko da mendiko bizikletarekin



Joserra Basaguren antolatzailea eta ibilbidean parte hartuko dutenetako batzuk.

Multiaventura & Sports taldeak naturaz eta historiaz lagunartean gozatzeko hiru mendi ibilbide antolatu ditu. ‘Ciden Bidea’ ize-nagaz, Alfonso VI.ak erbestera kondenatu ondoren pertsonaia historiko horrek bederatzi egune-tan Gaztelatik kanpora egindako bidea ezagutuko ahalko da.

Lehenengo ibilbidea Vivar del Ciden hasi eta Santo Domingo de Siloserainokoa, maitzaren 1ean eta 2an egingo dute. Guztira, 74 kilometro ditu. Bigarrenak, ekainaren 6tik 7ra artekoak, Santo Domingo de Silostik Castillejo de Robledorainoko bidea osatuko du (70 kilometro). Hirugarren eta azken ibilbideak Navapalosera eramango ditu, 66 kilometro egin ondoren. Azken irteera hori uztailaren 4an eta 5ean izango da.

Joserra Basaguren antolatzailerako batek ekimenaren izaera ludikoa azpimarratu du: “Hel-

burua ez da kronometroa mar-txan jarri eta lehenengo iristea. Lagunartean eta taldean egiteko ibilbideak dira, bizikletaz, paisai-az eta tokian tokiko aberastasun historikoez gozatzeko helburuz antolatuak”. Guztira, 50 herri inguru zeharkatuko dituzte hiru irteera horietan.

Hiru ibilaldi dira; maiatz, ekain eta uztail hasieran

Ibilbide bakoitza 70 kilometro inguruko luzerakoa da eta egun bitan osatuko dute

Hiru ibilbideetara abiatzeko irteera puntua Durangoko Gran Hotela da, goizeko 7:00etan. Handik kotxez irtengo dira irteera puntura. Ibilbideak egun bikoak dira eta, beraz, gaua kanpoan eman beharko dute; frontoi, eskola edo aterpetxeren batean lo egingo dute, esaterako. Lehenengo egunean ahalik eta kilo-metro gehien egiten saiatuko dira, eta taldeak hala erabakitzean hasiko dira ostatu bila.

Dudak argitzeko

Ibilbideetakoren batean parte hartu nahi duenak telefono hone-tan eman dezake izena: 630 233 934. Telefono berean, ibilbide bakoitzeko bezperan, 10:00eta-tik 14:00etara, azken orduan sortzen diren dudak argitu ahalko dira. Antolatzaileek irteera pun-tuan sasoi egotea eskatu dute, eguna ahalik eta gehien aprobe-tatzeko. ■ J.Derteano

Bizkaiko Kopari ekingo dio bihar Tabirakok

Tabirakok etxean jokatu-ko ditu Bizkaiko Kopako lehenengo bi partidua. Bihar Irlandesaren kontra ariko da, eta hilaren 25ean La Salleren kontra. Bihar-ko irabazteko partidua dute durangarrek. Biak jaitsiera fase-an izan dira aurretik, baina Tabira-ko indartsuago azaldu da. La Sallek, berriz, hirugarren amaitu du igotze fasea.

Durangoko taldea dagoen multzoko laukotea osatzen duen Askartza ere igotze fasean ari-ru da, eta laugarren amaitu du.

Puntu beharrean dauden derbia jokatu da etzi

Extremeñoek eta Ezkurdik Hirugarren Erregionala ekidin nahi dute, eta horretarako nahitaez-koak dituzte domekan jokatu-ko den derbiko hiru puntuak. Extremeño aspaldiko denboral-dirik onena osatzen ari da, eta bederatzigarren dago. Ezkurdik azken laugarren dago. Talde bien arteko alde bederatzita puntuak da. Beraz, Ezkurdik puntuak pilatzeko beharrian handiagoa du. Extremeñori lasaitasun handia emango lioke garaipenak.

Lurretako-Zaldia derbia jokatu dute domekan

Lehen Erregionalean ditugun gure ordezkari biek, lurretakok eta Zalduak, derbia jokatu dute etzi Larrako-Zelain. Lurre-takok beharrezkoa du garaipe-na mailaz igotzeko itxaropenari eutsi nahi badio.

Sailkapenari erreparatuz gero, etxeok faborito dira. Lurretako oso talde sendoa da etxeok neurketetan: hamaika partidua irabazi ditu eta bi baka-rrik galdu. Gainera sasoi puntu onean eta moralez gainezka daude, joan zen asteburuan lbarsusi liderraren etxean 1-3 irabazi ondoren.

Lurretakok 1-3 irabazi zion liderrari eta bost puntura hurbildu dira

Zalduak ez zuen garaipenik lortu, baina bai berdinketa ona Ermua bigarren sailkatuaren aurka (1-1). Beraz, bete-bete-ko partidua espero da.

Bestalde, lbarsusik partidua zaila du Leioa Bren zelaian. Leioarrak bosgarren daude, eta etxean sendo agertzen dira. Ermuak, berriz, Uritarraren kon-tra jokatu du.

Elorriok aukera gutxi ditu Kopan aurrera egiteko

Elorrio Eskubaloia Taldeak Eus-kadiko Kopako lehenengo neurketa jokatu du astebu-ruan, Muskizen kontra. Muski-zek Elorriok baino maila bat gorago jokatzen du, eta iaz igo-er fasea jokatu zuen. Talde indartsua da eta Elorriok aukera gutxi du partidua irabazteko.

Euskadiko Txapelketako finalerdiak lau multzoko (launa taldekoak) ligaxken bidez era-bakiko dira. Elorriok ez du zorte handirik izan, eta multzo gogo-rra egokitu zaio. Bigarren parti-dua Kukuyagaren kantxan joka-tuko dute. Horiek maila bi gora-go ari dira. Beraz, elorriarrek are zailago izango dute ligaxka estreinatze punturik batzea.

Agenda

FUTBOLA HIRUGARREN MAILA Kulturala - Basconia Zapatuan, 17:00etan, Tabiran LEHEN ERREGIONALA (gizonak) Lurretako - Zaldia Domekan, 18:00etan, Larrako-Zelain BIGARREN ERREGIONALA (gizonak) Berriz B - Zorrontzako Domekan, 11:30ean, Berrizburun Abadiño - Ermua Zapatuan, 17:00etan, Astolan Elorrio - Gernika Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden Extremeño - Ezkurdik Domekan, 16:00etan, Tabiran
ARETO-FUTBOLA OHOREZKO B MAILA Elorrioko Buskantza - Gollerri Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian
SASKIBALOA LEHEN MAILA JAITSIERA FASEA (gizonak) Tabirako Baqué-Mondragon Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian LEHEN ERREGIONALA - BIZKAIKO KOPA (emakumeak) Tabirako Baqué - Irlandesas Zapatuan, 19:00etan, Landakon BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak) Julza-Zaldia - Ugeraga Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian
PILOTA BIZKAIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA Atxondo - Mungia Zapatuan, 18:00etan, Atxondoko pilotalekuan Lurreta - Getxo Zapatuan, 16:30ean, lurretako pilotalekuan Zornotza - Berriz Zapatuan, 18:00etan, Zornotzako pilotalekuan

SAILKAPENAK >>			
Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	15- Santurtzi37	Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea/ gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi/ emakumeak
1- Elgoibar62	16- Ordizia35	1- Tabirako9 (+75)	1- Abaroa21 (+281)
2- Lagun Onak61	17- Eibar B35	2- Bidegintza9 (+63)	2- Bera Bera21 (+398)
3- Amurrio60	18- Zarautz33	3- Urdaneta9 (+56)	3- Ardoi20 (+239)
4- Portugalete60	19- Alaves B32	4- Bide Bide8 (+68)	4- Gernika19 (+268)
5- Beasain58	20- San Ignacio18	5- Mikeldi7 (-21)	5- Getxo17 (+104)
6- Gernika51		6- Pamplona UPNA6 (+20)	6- Atletico SN17 (+44)
7- Basconia49		7- Mondragon Uni6 (-22)	7- Tabirako16 (+190)
8- Zalla46		8- La Peña5 (-47)	8- Obenasa15 (+57)
9- Zamudio44		9- Getxo3 (-61)	9- Arabako EHU14 (+41)
10- Leioa43		10- Goierri3 (-139)	10- Irlandesas9 (-237)
11- Kulturala41			11- Uni. Navarra9 (-8)
12- Arenas Getxo41			12- Las Gaunas8 (-253)
13- Amorebieta40			13- Easo7 (-252)
14- Laudio37			14- Artieda7 (-195)
			15- Astigaraga4 (-337)
			16- Deusto-Loidi3 (-340)



Durangoko Kulturalak 41 gol sartu eta 40 jaso ditu orain arte

AMALURRA>



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Herritarren partaidetza, herrietako arazoak konpondu guran

Esaterako, gune berdeen eta bidegorrien garrantzia azpimarratu dabe foroetako parte-hartzaileek

Oraindino herritar gehiago inplikatzeari gura dabe Durangaldeko Udaltalde 21ekoek

Aurtengo foroak abiatu dira Durangaldean; ingurumenagaz lotutako hainbat gai izan ditue berbagai, besteak beste.

Tokiko Agenda 21eko foroak martxan ipini ditue Durangaldean aurten be, herritarren partaidetzaren bidez arazo edo gai konkretuen inguruan hausnartzeko. Urtean zehar bi edo hiru saio egingo ditue herriz herri, eta bertatik proposamenak aterako dira gero udalek horreekin aurrera egin ala ez erabakitzeko.

Mogikortasuna, irisgarritasuna, gizarte ekintzak eta ingurumenagaz lotutako gaiak aztertu ohi dira foroetan, eta urte hasierakoetan proposamenak egiten dira. Bigarrenetan, udalei proposatutako ekintzen garapena zelan doan ikusten da, eta azkenengoa egindakoa baloratu eta hurrengo urteko erronkei begira ipini ohi dira.

Dagoeneko burutu dira foro batzuk, eta, eskualde mailan baloratuz, aurreko urtekoekin

aldaketak igarri ditue antolatzaileek, Durangaldeko Udaltalde 21ekoen arabera. Hain zuzen be, gai orokorretatik zehatzetarako pausoa emon da: lehen mogikortasuna edo airearen kalitatea bazen, orain errepide bat edo erreka bat izan dabe berbagai, esate baterako. Urte honetarako zehaztu ditueen lehentasunetan islatzen da hori.

2009rako lehentasunak

Gune berdeen eta bidegorrien garrantzia azpimarratu dabe foroetako parte-hartzaileek, lurretan adibidez. Arriandi auzoan gune berdeak sortzearen beharra ikusi dabe. N-634 errepideari alternatibak bilatzea be proposatu dabe herritarrek lurretan.

Goi-tentsinoko kableen lurperatzea egoki ikusi dabe herri

batzuetan, eta ur-araztegien egoera hobetzea be bai.

Mogikortasunari jagokonez, kamioientzako bide bereziak atontzea, biribilguneak egitea eta kale batzuk peatonalizatzea hobesten dabe, orokorrean, foroetako partaideek.

Parte-hartze bila

Durangaldeko Udaltalde 21ekoek adierazo deuskuenez, "jenteak parte-hartzean sakondu dau". Saiotetan aurrera egin ahala, bere funtzinoetan hobetu eta "parte hartzeko ikasi dau".

Dena dela, oraindino herritar gehiago inplikatzeari gura dabe antolatzaileek, eta horretarako foroak erakargarriagoak egin gura ditue. Herritarren partaidetza "oso garrantzitsua da", Udaltalde 21ekoen eritziz.



IRAGARKI TAULA

saldu,erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeein...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde
zaharrek etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...

SALDU

Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU

Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko (ingeles
beste irakasg
batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera. 09:30
aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...

ANB (tarteak) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu

IRAKASKUNTZA

- Klaseak hartu
- Klaseak eman

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK



- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali ANB (tarte) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai Errioxan, San Vicente de la Sonsierran. Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza ditu. Bista onak. Tel.: 657 734 019

Otxandio. Pisu berria alokagai, trastelekua barne. 3 logela, komun bi, egongela, balkoia eta sukalde guztiz hornitua. Tel.: 655 726 760

Durango. Logela bat dut alokagai. Tel.: 659 749 084

Apartamentua alokagai Conilen. 3 logela, terraza, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Apartamentua alokagai Torreviejan. Urbanizazio pribatuan, gune berdea eta igerilekuekin. Hiru logela, komuna, sukaldea eta solariuma. Tel.: 615 779 622

KONPARTITU

Elorrio. Pisua konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Tel.: 609 939 095. (Lore)

Durango. Pisua konpartitzen da, gela, bainugela, egongela propioa eta sukalde konpartituekin. Tel.: 650 738 724

IRAKASKUNTZA

EMAN

Fisika ikaslea DBH edo batxilergoko ikasleei eskola partikularrek emateko prest: fisika, matematika, kimika... Tel.: 615 711 225

Ingeniaritza ikaslea klase partikularrek emateko prest: matematikak, fisika-kimika, euskara, ingelesa... (EGA eta advanced). Tel.: 616 345 890

Alemanierako klaseak ematen ditut. Etxera joateko prest nago. Tel.: 609 939 095

MOTORRA

SALGAI

Volkswagen California salgai. 2001eko abenduan matrikulatua. 140.000 km. Oso ondo ekipatua. 25.800 euro. Tel.: 656 785 827

OHARRA

Eroski Mibilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarteak

tituludun begirale eta koordinatzaileak behar ditu udalekuearako. Eman izena apirilaren 24a baino lehen. Harremanetarako: gazteak@berbaro.com

LANA

ESKAERAK

Durango. Etxetresna elektrikoen denda berrian lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 13 52

Emakumea behar da, goizetan umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 618 896 591

Berriz. Esperientziadun estetizista behar da lan egiteko. Curriculumak aurkeztu. Tel.: 94 682 68 83

Pertsona bat behar da umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Derrigorra da kotxea izatea. Tel.: 660 723 602

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. LH edo diplomatura eginda izatea beharrezkoa da, baita esperientzia izatea ere. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Argazkilaria esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Emakumea geriatriako laguntzaile lan egiteko prest. Sukaldaritza eta informatika ikastaroak egindakoa. Tel.: 690 201 367

Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago, orduka. Tel.: 627 468 002

Neska euskalduna, kotxearekin, edozein lan mota egiteko prest. Goizeko 9:00etatik aurrera astelehena eta asteazkena izan ezik. Arratsaldetan 7:30etatik aurrera. Tel.: 692 709 384

Lan Harremanetan diplomadun neska administrari, harreragile eta idazkari moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketan lan egiteko ere. Egun osoan lan egitea nahi nuke. Tel.: 617 084 252 (Elia)

Eraikuntzan edo soldaduran lan egiteko prest nago, baita zaintzan ere. Tel.: 686 054 186 (Jose)

Interina moduan edo kanpotik etorrita lan egin nahiko nuke. Erreferentziekin. Tel.: 636 852 059

Neska arduratsua etxeko lanetarako eta nagusien zein umeen zaintzarako prest dago. Tel.: 669 609 829

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko eta etxeak garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Torrevieja erdialdean, logela bateko apartamentua salgai. Sukalde frantsesa du eta klimatizadorea ere bai. Los Naufragos hondartzatik 10 minutura. 63.000 euro. Tel.: 675 710 536

Elorrio. Baserria salgai, bi etxebizitza eta txokoa ditu. Etxebizitza bat guztiz berriztuta, bestea erdizka. Txabola eta 6.000 m2-ko lursaila ere baditu. Tel.: 677 502 803 edo 699 846 219

INMOBILIARIAS



ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalel bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalel bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbroso Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Erretentxu: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 komun. Balkoia.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.



Peugeot 306 salgai. 160.000 km. Egoera onean. 1998 urtekoa. 2.200 euro. Tel.: 679 389 783. Maxi.

Mini Cuper berdea salgai. 1991 urtekoa. 40.000 km. Extra asko. 6.500 euro. Tel.: 618 881 272. Javi.

Nissan Vanette Cargo zuria salgai. Oso egoera onean, ondo zaindua. Tel.: 689 02 46 47.

Suzuki Vitara 1900 Diesela salgai. Matrikulazino urtea 1999an. 168.000 km. Aurreko defentsak eta llantak aluminiozkoak ditu, eta bola be badauka. Deskapotable gogorra. Tel.: 616 333 017 edo 616 116 333

Renault Laguna 2.2 TD salgai. 1200 euro. Tel.: 652 709 440

Citröen c15 diesela salgai. 8 urte eta 140.000 km ditu. 1.000 euro. Tel.: 636 339 971

ANIMALIAK SALGAI

Asto arra salgai. Urte bi eta erdikoa da. Paperak ditu. Prezio onean. Tel.: 656 772 994

OPARI

Pedigreedun katu bi oparitzen ditut. Urte eta erdikoak. Bakunatuta. Tel.: 650 738 724

Txakurkumeak oparitzen ditut. Oso jostariak dira. Tel.: 679 290 896

BILA

Txakur baten bila nabil. Martxoaren 8an galdu nuen. Lau hilabete ditu eta arratoi-txakurra da. Baten batek aurkitu badu, deitu telefono honetara, mesedez. Tel.: 665 731 417

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Durango. Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

Durango. 100 m2-ko lokala alokagai Alde Zaharrean. Edozein motatako negozioarako. Guztiz prestatua. Berehala lanean asteko moduan. Prezio merkea. Tel.: 615 794 459

Durango. 90 m2-ko lokala alokagai Barrenkalen. Edozein motatako negoziotarako. Berritu egin behar da. Prezio merkea, adosteko modukoa. Tel.: 615 794 459

Durango. Garaje itxia alokagai J.M. Altuna kalean. Tel.: 652 865 780 (deitu asteburuetan)

Berriz. Trasteleku txiki bat alokagai Geltoki kalean. Tel.: 94 622 56 73

BESTEAK SALGAI

Karro denda salgai. Oso ondo hornitua eta zaindua. Tel.: 658 759 264. Ima.

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono salgai. 120 euro bakoitza. Tel.: 660 085 720

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezkerre lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berriku-sia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Bi technics sl-clz 1.200 (cd platoak) berriak salgai. Garantiarekin. 1.200 euro biak. Negoziatzeko aukera. Tel.: 616 095 655 (deitu 18:00etatik aurrera)

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

Egoera onean dagoen CD erreproduzi-tzailea erosiko nuke. Tel.: 625 92 10 57

BEREZIAK

Munduko garagardo ezberdinen botilen txapa bilduma osotzeko txapak aldatzen ditut. Tel.: 695 452 194

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zerbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest daude. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dit. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Desbrozadorekin garbiketak egiten ditut.Orduko kobratzen dit. Tel.: 650 181 443

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu zerbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Fardoak. Fardoak egiten ditugu. Interesatuak deitu dezala ondoko telefono honetara: Tel.: 615 782 247

Gortinak, koltxak, etxeko osaga-rriak... josten dira. Etxeko arropen konponketak ere egiten dira. Partikula-rrentzat . Tel.: 675 707 275



Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41
Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO

18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 M-TARA.

BERRIZ

PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO

PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO

C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukaldea eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.

ELORRIO

P49: 105 m2. Saloia, sukaldea, 4 logela eta 2 bainugela. Propanozko berogailua. Leku oso onean. P51: 80 m2. Saloia, sukaldea, 4 logela eta bainugela. Gas naturaleko kalefakzioa. Trastelekua. Leku ona. Prezio ona. P54: 111 m2. Saloia, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Gas naturaleko kalefakzioa. P55: 68 m2. Saloia, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Erdialdean. P63: 79 m2. Duplex: 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua. Ia berria. Gas naturaleko kalefakzioa. P64: 67 m2. Ia berria (3 urte): 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Garaje itxia eta trastelekua. P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefakzioa. P69: 63 m2. Jauregi berritu baten, atikoa.Logela bat, sukaldea, egongela eta komuna. P72: Alde zaharrean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztuta. P73: 80 m2. Duplexa: 3 logela, sukalde-saloia, 2 bainugela eta 2 trasteleku. Gas naturaleko berogailua. Dena barritzuta. Prezio oso ona.



Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
 - 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.000 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela berriztatzeko.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durungaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta...
 - Durungaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
 - Durungaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Mañarian: Etxebizitza ia berria. Bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Aramotz: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramotz: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Ezkurdi: 3 logela, egongela, sukaldea eta barritzatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta 2 terraza. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.



FRAY JUAN DE ZUMARRAGA, 4. 48200 D. DURANGO
TEL.: 94 681 40 40

ETXEBIZITZA SALGAI

- Tronperrin: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Astxikin: Estreinatzeko. 2 logela. Ganbara eta garajea. Terraza.
- Frantzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Goienkalen: 3 logela. Berogailua. Ganbara.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Murueta Torren: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabalen: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Zeharkalean: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Komuna eta egongela. Ganbara. 210.350 €.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun.

IURRETA

- Bidebarrietan: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Despentsa. Igogailua.234.400 €.
- Maspe kalean: 70 m2.3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.Igogailua.

ABADIÑO

- Estreinatzeko. 1 eta 2 logelako etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde jantzia. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.

LOKAL KOMERTZIALAK

- Komentu kalean: 80 m2. Alokairuan.
- Barrenkalen:, bi lokal: 30 m2 eta 40 m2. 105.000 €.
- Ibaizabalen: Alokairuan.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.
- F.J. de Zumarragan (Madalena): 75 m2. Salgai.



San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK

NEGOZIATZEN DIRA.

- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

			Lasaitu	▼	Jarraibide	▼	Itsaso handiak
			Giza hezur		Kulturari dagokiona		
			➤		▼		
			Egiptoko hiria	➤			
			Kirikino				
Leialtasun	▼	Multzo, andana	➤	▼			
Bere onetik aterea		Foruari dagozkio					
➤		▼					
Neurrira egokitu	➤					Nitrogenoa	➤
* Irudiko planeta						Pl., intsektu mota	
➤						▼	
Zelai	➤			Barazki hostotsua	➤		
Zilegi				Gipuzkoako herria			
➤			Gabarra txikiak	➤	▼		
			Neukake				
Hesola	➤		▼				Nafarroako herria
Aintzira							
➤					Harrapa ezan!	➤	▼
					3. eta 2. bokalak		
Tona	➤	Akuriak	➤		▼		
Lehengo		Hidrogenoa					
➤		▼					

SUDOKU >

1

6		8				7	3
1	9				3	2	5
		2	6	7	1		
	2				9		4
4	3					8	7
7	6		5		4		1
5			4	9	2	7	
	1	4	3				9
		3		6	8		2
							4

2

			2			3		7
5		1				6	8	
4			3				9	
		8	4	1				
				6		5		
	1	6					3	
		4			9			
3								8
	8				2			

3	7	6	2	7	1	5	8	9	6
8	1	4	5	7	9	2	6	3	
9	5	2	6	3	8	4	7	1	
4	3	8	5	2	7	9	1	6	
1	7	5	8	9	6	4	7		
6	9	7	3	1	4	8	5	2	
5	6	1	9	8	3	4	2		
2	8	9	4	7	6	4	8	5	
7	3	1	5	1	3	4	7		

2									
3	7	6	2	7	1	5	8	9	6
8	1	4	5	7	9	2	6	3	
9	5	2	6	3	8	4	7	1	
4	3	8	5	2	7	9	1	6	
1	7	5	8	9	6	4	7		
6	9	7	3	1	4	8	5	2	
5	6	1	9	8	3	4	2		
2	8	9	4	7	6	4	8	5	
7	3	1	5	1	3	4	7		

O	K	E	N	E	H	E	L
K	V	I	U	K	•	J	•
O	N	•	V	U	K	V	L
•	I	V	L	N	V	L	•
K	V	L	V	•	L	I	Z
V	Z	V	•	U	V	L	•
O	I	R	U	K	R	E	M
N	•	U	L	I	O	D	•
V	A	L	I	R	I	F	X
E	D	E	•	T	A	L	•
Z	E	U	•	S	•		
O	R	O	•	S	A	K	
•	E	•	N	•			

HOROSKOPOA >



Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Atzo medikuarekin zita, gaur lagunekin hitzordua... Zer ahaztuko dozu bihar? Erosi egizu aste honetan egutegi bat.



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Aste Santuan hartutako indarrak, erabili egizuz izango dozuzen erronkei aurre egiteko. Zorte on!



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Udabarria ez da uda. Eguzkiaren nahia badaukazu, apur bat itxaron beharko dozu. Normala da oraindino be euria egitea.



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Ezin gara bizitza osoan atzerantz begira bizi. Askatu lehengo loturetatik eta egizu aurrera. Jente barria ezagutuko dozu.



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Parrandarako gogoz? Lasai, Elorrioko Erreka Kaleko jaiak hemen doguz, eta Matienako jaiak be eta jake dagoz!



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Gaztetan izandako ametsak ezerezean geratu ziren, baina inoiz ez da berandu amets horreei berriro heltzeko.



Libra
irailak 24 - urriak 23

Ettxera heldu eta telebistaren aurrean ipintzen zara, adi-adi. Lantzean behin irakurtzea be ez legoke txarto.



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Bere usaina, bere janzkera, bere irribarre... berea den guztia gustuko dozu. Guztiz maiteminduta zagoz, lagun! Emon pausua.



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Noiz joan zinen azkenekoz dentistarenera? Haginak ondo daukazuzela uste izan arren, zoaz badaezpada errebisinoa egitera.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Zergaitik aldatzen dozu jarrera zure bikoteagaz zagozenez? Izan zaitetz zaren modukoa, alperreko lotsa eta aktuzino barik.



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Egungo bizimoduak jatordu azkarrak eskatzen ditu. Egizu saiakera lapikoko janaria gehiagotan jateko.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Badozu modara joateko sasoi. Beti dinotsue arropa horrek zaharrago egiten zaituela; ez jake arrazoirik falta. Ez gagoz 80ko hamarkadan!

ZORION AGURRAK >



Zorionak, **Alaitz!** Atzo zure urtebetetzea izan zelako eta asteen bigarrenrean amatxo izan zarelako. Jaurtxikitik.



Amaiurrek apirilaren 12an 5 urte egin zituen. Mosu handi bat, etxeko eta Uxueren partez. Ondo pasa txokolatadan.



Mirenek apirilaren 9an 20 urte egin zituen. Zorionak eta ez egin parranda asko,e! Jauregitxikitik, Amaieur eta Uxue.



Zorionak **AEK**, bizi izan dogun **16. Korrika** mundiala antolatzeagaitik. Eskerrik asko euskaraz bizi gura dogunon herria eraikitzen egiten dozuen lanarengaitik. Amets, Araitz, Amaieur, Elaia, Oier, Malen eta Peioren partez, mila esker.




Anderrek martitzenean 6 urte egingo ditu. Ondo pasatu eta opari asko jaso! Uxue eta Amaieur, Aramaiotik.




Xabatek apirilaren 17an 6 urte egingo ditu. Zer mutil handia! Mosu handi bat, Aramaiotik, Amaieur eta Uxueren partez.



Jonek astelehenean 17 urte egingo ditu. Urte bete kotxeko karneta lortzeko! Zorionak! Aramaioiko lehengusinak.



Amaiak apirilaren 19an urte bi egingo ditu. Zorionak eta mosu handi handi bat Edu, Markel eta Begoren partez.



Zorionak, **Jon!** Apirilaren 23an 8 urte egingo ditu. Ondo pasa eta besarkada handi bat Edu, Markel eta Begoren partez.

EUSKO LABELA >

Merkatuan dira denboraldi honetako lehenengo Gernikako Piperrak



Gernikako Piperra
Pimiento de Gernika

Neguaeren ondoren eta udabarriagaz batera, saltokietan Labeldun Gernikako Piperrak erosi geinkez.



Azken urteotan Gernikako Piperrak indar handia hartu dau.

Gernikako Piperra, Euskadiko hazi onenen artetik sortutakoa da. Merkatuan erreza da bereiztea, erretilu gardenetan eta Eusko Label bereizgarriagaz saltzen da-eta. Zigilu horrek piperra identifikatu eta haren kalitate ona bermatzen dau. Ezaugarri honeek ditu: estua eta luzexka da (6 eta 9 zm), bere azala leuna da eta berde kolorekoa, Euskadiko piper mota autoktonoa da, landaketak ingurumena errespetatzen dau, onenen artean aukeratu dabe eta beti fresko heltzen da merkatura. Gainera, Eusko Labelak etenik barik egiten diren kontrolen bitartez, haren kalitate handia bermatzeaz gainera, araudi zorrotza betetzen dauela be bermatzen dau.

2008ko datuak

Igazko datu onen ondoren, 2008a eguraldi txarra medio, ez zen hain ona izan Gernikako Piperraren ekoizpenean. 2008an Eusko Labela daukan Gernikako Piperraren ia 500 mila dozena ekoitzi zituen 33

ekoizlek. Dena dela, egoerak aurtien buelta emotea da itxaroten dena, eta horren seinale da dagoeneko merkatuan jarri diren lehenengo piper dozenak.

Ekoiztutako Gernikako Piperraren %60 Euskadin saldu zen, eta %40 inguru estatuan; gehienbat Madrilen eta Bartzelonan, goi mailako jatetxeetan batez be. Eusko Labela daukan Gernikako Piperra produktu berezi, ezberdin eta "mokofinentzakoa" dela esaten da.

Azken urteetan Gernikako Piperrak indar ikaragarria hartu dau. Zenbaitzuk egoera aprobetxatu eta Marokotik piper merke eta kalitate baxukoa ekarri dabe hemengoa bailitzan saltzeko. Zuzenean ez badabe jartzen Gernikako Piperra dela, kontsumitzailea nahastera jokatzen dabe. Euskal izenak jartzen deustiez hemengoak bailira saltzeko. Sekula baino garrantzitsuagoa da produktu honen kasuan identifikazioaren beharra. Eusko Label bereizgarriak bertako Gernikako Piperrak eta kalitatekoak direla bermatuko deusku.

Gernikako Piperra
hegaluze marmitakoz beteta

OSAGAIK:

- 6 Gernikako Piper berde
- Tipula bat eta bi patata
- 2 piper erregosteko
- 2 piper txorizero
- Hegaluze fumeta, hegaluze marinatua:
- 200 g hegaluze
- Oliba-olioa 0,4°
- Modenako ozpina eta gatza
- Tomate zukua: 4 tomate

Tipula eta piperra dadoetan moztu eta 0,4°-ko oliba-oliotan gorrituko doguz. Uretan edukitako piper txorizeroak eta patata kraskatuak gehituko deusteguz, dena apur batean gorritzen itziz. Hegaluzearen hezurerekin egin-dako fumetaz estalduko dugu, ordu erdiz gitxi gorabehera. Hori egin ondoren, pure lodi bat egingo dogu.

Bestetik, hegaluze bizkarrak 0,4°-ko oliba-oliotan marinatuko doguz, gatza, piper-hauts beltza, Modenako ozpina eta barazkiak gehituta. Hegaluzea dado txikietan puskatuko dogu, aurreko marmitako horregaz nahastuz, eta horregaz guztiagaz Gernikako Piper berdeak betez. Frijitu eta zapi lehor bat pasatuko deustegu, geroko itziz.

Bestetik, tomate zatituak zapi baten barruan jarriko doguz iragazki batean, likidua isuri daien, horixe da-eta plateraren oinarri moduan erabiliko doguna. Tomate-zukua jarriko dogu eta gainean piper beteak.

On egin!

ARDAOAREN NEGARRA "Ardao guztiak beti kopan"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Kalitateko ardao guztiak kopa egokietan zerbitzatzea eta edatea eskatzen dabe. Koparik ez dogu-nean bakarrik eta behartuta gagozenez erabiliko dogu edalontzia, nahiz eta jakin ez dela aproposa. Bada horretarako arrazoirik: ardao berotu egiten da, ez doguz ardaoak dituen inpresioak antzemango. Gainera, edalontzi batek ez dauela janzen esan geinke. Egizue aproba: zerbitzatu ardao kopuru bardina kopa batean eta edalontzi batean, biratu biak, eroan egizue sudurrera eta desberdintasuna nabarituko dozue. Ez jatzue iruditzen ardao desberdinak direla? Galdera horren erantzuna edateko erabilitako ontzian aurkituko dozue. Kontuan izan ardao kopa aproposetan zerbitzatea, mahastizainak, enologoak edo sotozainak hasitako bidearen bukaera bikaina dela.



Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Camueta autotzadas

Euskal Okela inguruko harategi hauek aurkituko duzu:

Abadiño

• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA

Zaldibar

• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8

Olxandio

• GAZTANETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

Inaki

• INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

Oka

• OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak: Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produktuen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Santana, 6
48200 Durango

Hilero azken ostiralean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kila 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piperrak", pote 1 Ezti, idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Enixiako Ardoa", botella 1 Arabar Enixiako Oliba Birjina, Txakolinesko bonbol-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Ene Bilbatzaz edo Euskal Baserriko Ollasikoz trukatzeko.



Miren Amuriza
Ikaslea

Katxiporreta!

Zuetako askok goizero-goi-zero belarritakoak ipintzen dozuezen moduan, beste zenbaitek sudur gorria eta irribarra jantzen ditue. Izan be, nork ez ditu ezagutzen koloretako ametsak eta txokolatezko mosuak ekarri euskuez Pirritx eta Porrotx?

Liburuetan idatzi bako ikasgai garrantzitsu ugari helarazten deusie lagun bi honeek Euskal Herriko milaka gaztetxori: "eskerrik asko" esaten, ilargiraino eta bueltan maitatzen, hodeiak itsasontzi zein arranoen hego bilakatzen edo lagunak estimatzen, besteak beste.

Baina, antza denez, asko dira oraindino mezu horreek ulertu nahi edo ezin ditueenak; azken egunotan, zeresan handia sortu dau gure pailazok egindako bideo batek: Euskal preso politikoek eta euren familiak eta lagunak bizi daberen dispartzio egoera latza islatzen dauenak, hain zuzen be. Horren harira Pirritx eta Porrotxen aurka egin ditueen adierazpen mingarriak eta irainak irakurrita, ezagun da estatuko komunikabideek Aste Santuan prozesinoez gainera zer kontatu handirik eduki ez dabena...

Baina sudur gorria armairuan ezkatatu eta egunkarrietan korbatagaz agertzen den beste pailazo koadrila horri gustatu ez arren, jende ugari batuko gara domeka honetan be Durangon; gugandik hurbil zein urrunean une zailak bizi ditueen guztiei elkartasuna adierazoz.

Eta gogoan izan, Pirritx eta Porrotxek dinoen moduan: "Bihotza, burua, eskuak; sentitu, pentsatu, ekin... denok elkarrekin!!".

Ikasgai garrantzitsu ugari helarazten deusie Euskal Herriko milaka gaztetxori

"Aisialdi, afizino eta ofizio izan dot bordatzea"

48 urte bete ditu bordatzen, eta gorputzak iraun artean jarraituko dauela dino abadiñar honek

Abadiñon, orain Udal-letxea den lekuan, Mertzedariekin ikasi eban bordatzen Estherrek. Ikasterik gura ez eta, handik irtetean, 15 urte-gaz, hasi zen bordatze-lanetan. Urtebetera Ebaketa eta Jantzigintza be egin eban. Harrezkero ez ei da gelditu.

Urteetan diharduzubordatzen...
Badira 48 urte. Hondarribian be asko ikasi neban edadeko andra oso jator bategaz; 18-20 urte dira.

Pazientzia handia eskatzen dauen lana daukazu!

Sarri-sarri optikara joan, zahartu aurretik kristalak egunean ipini, eta pazientzia handiz egiten da bordatzen. Orduko kobretan hasiz gero, preziorik ez daukan lana da: izurtzuak ziren lehen gortinak. Orain, izurbakoak eta eskulanez eginikoak; asko kostetan da. Ehunagaz lan egiten dogu, eta halako lanak oso garesti irtetzen dabe. Honetara kapritxoak dedikatzen naz, ez ditut kanporako egiten.

Ikastaroak be emoten dozuz.

Abadiñon 12 ikasturte daroadaz, Berrizen 3-4. Denera 22-23 ikasle daukadaz, oso jatorrak. Norberarentzat egiteko datoz, kanporako ezin da-eta ordaindu; orduak eta orduak behar. Ideia eta inpresinoak trukatzu be asko ikasten dot. Gizonik ez dago, baina polita litzake.

Afizinoa ofizio dozu...
Betidanik.

Neuri gustetan jatena egiteagaitik ordaindu egiten deustela esan dot beti. Aisialdi, afizino eta ofizioa izan dot bordatzea.

Eta jubilatzeako asmorik?

Gorputzak iraun arte, edo "Asper-tu naz!" esan arte jarraituko dot. Jubilazinoak errespetua emoten dau; preparazinoa behar da.

Zer dela-eta?

Ez dinot bete beharlez hartuta, baina egitarau bat behar dogu. Egin dot 08:00etan hasi eta biharamunek 09:00ak arte, lorik egin barik. Hori ez dot gura, baina ezta eguna hutsik izatea be.

Zer enkargu mota egiten dozu?

Batez be, txapelak bordatzen ditut. Ez dakitzen bat urtean! probetarako mantak be egiten ditut.

Txapelak...

Txapelketak hainbat izanda, horrenbeste bordatu behar izan ditut. Baita ezkon-gaien-

dako be. Ohitura handia da, batez be, Bizkaian: omenaldia, jubilatutena, despedida, koadrilako zaharrena... denerako oso sartuta dago txapela. Udalarentzat be aspaldian armariak bordatzen ditut.

Enkargu berezirik izan dozu?

Senarrari emoteko txapela eskatu eustan ezkongai batek. Oso originala iruditut jatan; halakorik ez jat suertatu! Koadrilakoen, senitartekoen... eskutik hartzen dau emakumeak txapela aureskua egin ondoren. Ez dakit noiz emongo eutsan! Txapelean babalapikoa bordatzea be eskatu eustan giputz batek Nafarroara eroateko.

Zer da gaxena?

Gaur datozenak atzarako egiteko. Denpora izanda lanik gaxenak be gura dozun era horretan irtetzen dau. Gozada dena da lana zelan geratuz doan ikus-tea.

Txikikerietaz arduratzen ei gara...

Halan izan behar dau: bakotxak gura dauena eskatzea normala da. Zer gura den jakinda etortzea dagoenik eta politena da, ikusi eta ikasteko be!

Eta krisirik igarri dozu?

Txapelaren eskaria hornitu arte itxaron be egin behar izan dot. Enkar-guak be, oraingoz, normal doaz.

Ofizioa transmititzerik izan dozu?

Autonomoak orduen buruz egiten daulan, ez dago eskatzeko moduan; bere zailtasunak daukaz. Gaupasa piloa egin dot, kalimotxo barik, lanean. Oso gogorra da. Podium-ekin dihardugu eta sasoiak dagoz; dena batuleiteke. Krisialdian holakoei be ebatu beharra egon leiteke, baina, jenteak holako lanik ez dau gura izan.

Oparitu dozu txapelik? Eta jaso?

Bai horixe! Zilarrezko ezteguetan, laguneren baten ezkontzan... Jasotzeko gusturik ez dot hartu oraindino, baina, gustura hartuko neuke!

Esther Arana

Abadiñoko mertzedarietan ikasi eban bordatzen

64 urte ditu eta ez dauka jubilatzeako asmorik



maristak
Ikastetxea · Durango

ATE IREKIAK: datorren asteazkenean
Apirilak 22, arratsaldeko 6etan
'Batxilergoak eta Zikloak'

Euskadi



HETEL

informazio gehiago
www.maristak.com • 94 681 00 58
Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia
san-jose@maristak.com